


68

3 euro • 2002ko MAIATZA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JOHN CLEGG •
K@ZET@ ALDIZKARI ELEKTRONIKOA
• ARGAZKIAK ETA MATEMATIKA •
HIK HASI UDAKO TOPAKETAK •
JULIA FERNANDEZ ZABALETA



GATA

Zientzia

abstraktua ala ulergarria?

I Z L

r t l tx

t k 1 urt t rt k ntz t l stuz rr kusk t t k

U k k k rn k



U KO KO E NO K
koler t a gu kom r r zk z
os tu a t a n lutz ko
nts tu t n l o l tal a .

Ko moel n hurr ngo rloh a k lutz n r
eusk r ingura r n Ez gur . M e m ek z
G z l r . g r r r z n l s i k o
l n u g l n l f i x h a t k e g h n t n .

Ko mon u r k o f t x k e t z s r t l o t u
g e t l h o n n t r e z z r y n r k e t z r n
u r r n k a l k g n a n h i g n s e t z k e
t s k n n h e n .



I Z L



gaia

ZIENTZIA: ABSTRAKTUA ALA ULERGARRIA

Zientziaren irakaskuntza modu ulergarriago eta erakargarriagoan lantzeko metodologiaren berri eraten digute Oreka taldeko kideek. Eta Rafa Muñoz Fisika eta Kimikaren irakaskuntzan teknologia berriak nola erabil daitezkeen proposatzen ditu.



elkarrizketa

JOHN CLEGG

Britania Handiko Londreseko hizkuntza aholkulari honek National Literacy Strategy proiektua azaltzen ditu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ZIENTZIA, ABSTRAKTUA ALA ULERGARRIA

Fisika-Kimika eta Teknologia Berriak
Oreka taldea eta Rafa Muñoz

16 elkarrizketa
JOHN CLEGG

24 esperientziak
Kazeta aldizkari elektronikoa saritu dute

Xabi Ballarena eta Nora Salbotx

28 esperientziak
Argazkiak eta Matematika

Jesus Mari Goñi

30 teknologia berriak
Softwarearen azterketa eta sailkapena

Iker Laskibar

33 berriak

39 eskolako zertzeladak historian
Julia Fernandez Zabaleta maistra nazionalista

Irene Lopez-Goñi


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Laborategian (Iker Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002 /V/2. Kopurua: 3.500 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez dituz bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO





HE IT TXIKI K



K LIT TE LEHEN H U TZ N
EU K MET K

2 2k m tz r n 25 , IL N

IZEN EMATE

Ex z g z b l k h n k z s t s t m u t z
M l k u l i n k (m u s k k u s t l z n z k) l
r t n t z z u n s t m n
l z k z n m n h l s t u k n r
n u r u n t z F a n n z
T I f n 5 1 5 - F x 5 1 3 1 1
e m l f a n n z e m s
H I Ex z z z t G z t 3 t k 8 1 G z n
n z k z u n t z
E x l l n s t k l 1 1 1 V e n 3 s t z
(t r z F a n n z n z t z)

e t k u l e r k s l e f s n l

I z n l n
E r k i n t l

H I
T I f n F x
e m l

- G z k s
- e r t s l k s
- M u s k k u s t l

3 z r s EUSK L UN U L EGI N h z k

K L I T E M E T K E S K T S U N E N

I n n l u n

H i n t z z e n z z n n t l u r z n n a m e k E r n k S e k k

H U H E Z K U N T Z E N E Z U C T E T I S K U K L I S M L G U Z I E N E

E T E C C I E M L K I T U L U L H U E S K L K

I f n H y u l s I n l l

k k z l h u n e k l u n t l e s M l u z z n l n n l u

H I G A N T Z K L I G A N T Z E T L E H E N H U T Z E G U N G I T I E N

3 E N E K I T Z T U K T L E K

M r t m n

E m k u n h e l n t l k k b

a n l n r z a n t n a n t z z n t a r k n n n u r z l a u n n l l

L I T E T I K U T E K I H U H E Z K U N T Z K U L E E U T

H U H E Z K U N T Z K 3 N K U L E T N T U

L l u z m n c h

H u h z k u n z k C n n k u l l u n b u k z a n n r

C i w n d e n e t h u l n C i w n

m t l k s GUGGEINI ICIM e k u t e r n

M u s k k u s t l (n n t z k)

• H u r t z k k m u s k - n n z u m k e g z

• L e s u s n s E s n r e s M n e l v (E l f n n e l l u r u n n l l)

TIKNO IAUNTARITZA  GONTANO YASCO

ETXELIZTET GZ T E T K S IL

G E N E S K S I U R E S 6 9 1 6 9 1 K 2 0 2 1 1 5

editoriala maiatza

Hezkuntza geurea eta solidarioa



Jakintsuak baino
pertsonek behar
ditugu, eta pertsona
horiek herriko
hizkuntzan eta
kulturan badira
jakintsu, askoz hobe

Pilar del Castillo ministrak *Oinarrien txostena* garatzean erabiltzen duen *kalitate* kontzeptuak euren ezarritako emaitzen neurgailuari begiratzen dio soilik.

Hezkuntza munduan gabiltzanok, irakasteaz gain badakigu zein garrantzitsua den heztearen erdia. Heziketa gabeko irakaskuntzak jakintsuak sor ditzake, baina garbi dago munduak jakintsuak baino pertsonak behar dituela eta pertsona horiek jakintsuak badira, askoz hobe.

Horregatik, *kalitate* hitzak ezin ditu ikasle bakoitzaren ahaleginak eta daraman prestatze prozesua ahalaztu, ezin du ikasleak bizi duen herriaren hizkuntza eta kulturaren ezagutza eta bizipena alboratu, ezin du ikastetxe bakoitzak ezartzen duen hezkuntza proiektua kontuan hartu gabe utzi, ezin du... eta egiten du.

Horregatik guztiagatik, **hik hasik**

bat egiten du Bilbon maiatzaren 4an *Hezkuntza, geurea eta solidarioa* lelopean egindako manifestazioan irakurritako idatziaren ideia nagusiekin. Idatziak honela zioen:

Hezkuntza, geurea eta solidarioa

Gaur hemen manifestatu garen milaka euskal hiritarren iritziz, PPko Gobernuak Kalitate Legea deitzen duen hori azkenik indarrean jartzea lortzen badu, gaindituztat ematen genituen garaierara itzuliko gara.

Badakigu jakin manifestazio honetan parte hartzeko deia egin dugun erakundeon artean ez dagoela erabateko adostasuna Hezkuntzako ministra espainolak aurkeztutako txostenaren edukia aztertzerako orduan. Hala ere, Legearen ezarpenak ekarriko lituzkeen ondorio larriak kontuan har-

tuz batu egin gara eta gaurko mobilizazio handi hau burutzea lortu dugu.

EZ esan diogu eta esango diogu Lege honi, EZ inposizioari, EZ uniformizazioari, EZ atzerakuntzari.

BAI esango diogu, ordez, gizarte kontsentsu zabal eta jarrera integratzailearen bitartez, hainbeste kosta zaigun eta oraindik gertzen zaigun horretan sakontzen jarraitzeari. Kalitatezko hezkuntza, euskalduna, euskararen erabilpenaren normalkuntzan aurrera egin eta egungo elebitasunetik eleaniztasunera irekiko dena, desberdintasun sozialen gainditzaileria, integratzailea eta parte-hartzailea, geuri dagokigun gizarte eta kultur eremutik, Euskal Herritik, egituratu eta antolatutako hezkuntza. Hori da gure bidea.

Bilbon, 2002ko maiatzaren 4an.

kronika

*Udabiltzak 18.030 eurotako diru laguntza emango dio Baionako Bernat Etxepare lizeoari. Diru hori lizeoko hornidura berria bermatzeko erabiliko da, hau da, Internet sarea osatzeko, Dokumentazio Zentroa antolatzeko eta sareari lotzeko...
Udalbiltzako Batzorde Eragileak aditzera eman duenez, Euskal Herriak ez du oraindik hezkuntza sistema propiorik, eta Udalbitza Euskal Herriko lehen administrazio nazionala izanik, hezkuntza propioa zehazteko bidean hainbat urrats egiten ari da. Proposamen ugari aztertu dituzte, eta horietako bat izan da Bernat Etxepare lizeoarena. Lizeoko zuzendariak euskarak teknologia berrietara jalgi eta Europan behar duen tokia aldarrikatzeko beharra azpimarratu zuen, eta Udabiltzak emandako dirua horretara bideratuko dutela.*



Lanbide Heziketaren aldeko apustuarekin darraite administrazioek

Lanbide Heziketako ikasle kopurua handitu doa eta lan munduarekiko lotura gero eta sendoagoa da. Hori da, bederen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak adierazi dutena. Administrazio biek Lanbide Heziketaren aldeko apustua egiten jarraitzeko asmo irmoa agertu dute.

Jesus Laguna Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak azaldutakoaren arabera, Nafarroan Lanbide Heziketako titulua ateratzen duten hamar ikasletatik bederatzik lehen urtean lortzen dute lana. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eta Enplegu Institutuak elkarrekin egindako azterketa bateko datuak dira. Beronen arabera, lana aurkitzeko espezialitate egokie-

nak Jarduera Fisikoak, Ibilgailuen Mantenimendua eta Ekoizpenen Zerbitzuak eta Mantenimendua dira. Alderantziz, lana gehien itxaron behar izaten dutenak Dekorazioa eta Argazkigintza eta Kultur eta Gizarte Zerbitzukoak dira.

Lagunaren hitzetan “*azterketa honetako datuek baieztatzen dute merkatura egokitutako eskaintzak egiten ari garela Lanbide Heziketan, hau da, industriatik jasotzen diren beharrak betetzen ari garela*”.

Angeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aditzera eman du 2010. urtean egongo diren lan eskaintzak asetzeko ikasleen %70ak Lanbide Heziketa ikasi beharko duela. Etorkizunean lan egiteko modua erabat aldatuko dela azaldu du, lanpostuak mugikorragoak izango direlarik. Horrek oinarritzko formazio ona eta lan mundura egokitutako prestakuntza anitza eskatzen du, eta egun egiten den eskaintza ildo horretatik doala azpimarratu du.

Arabian, Gipuzkoan eta Bizkaian 30.323 gazte matrikulatu dira aurten Lanbide Heziketan, iaz baino 1.115 gehiago. Matrikulaziorik handiena izan duena Fabrikazio Mekanikoa izan da, eta horren atzetik Elektrizitatea eta Elektronika eta Administrazioa. Kopuru txikiena jaso dutenak, berriz, Ehungintza, Jantzigintza, Larrugintza eta Itsasoko eta Arrantzako Jarduerak izan dira.

On Martxelok, nere maisuak, gauza oso garrantzitsu bat erakutsi zidan, norberarekiko eta norberaren printzipioekiko zintzotasuna, besteekiko leialtasuna eta egoera eta leku guztietan duintasuna mantentzea

Jon Idigoras



Milaka lagunek eman diote ezetza Kalitate Legeari

Hezkuntza, geurea eta solidarioa lelopean milaka lagun elkartu ziren Bilbon maiatzaren 4an egin zen manifestaldian. Euskal Herriko hezkuntza alorreko eragile ia guztiek hartu zuten parte: EHIGE, Ikastolen Elkartea, Sortzen-Ikasbatuaz, Sarean, BIHE, Ikasle Abertzeak, EILAS, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak. PP ez beste gaintzeko alderdi politikoek ere bat egin zuten protestaldiarekin eta jende andarekin batera hainbat politikari bertaratu ziren: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztueta, EAJko Josune Ariztondo, IU-EBko Osacar Matute, PSE-EEko Isabel Celaa, EAKo Gorka Knörr, Batasunako Tasio Erkizia... Beste hainbat gizarte eragiletako kideek, gurasoek, ikasleek eta irakasleek ere Bilboko kaleak bete zituzten.

Hezkuntza, geurea eta solidarioa lelo nagusiarekin batera beste hainbat ere ikusi ahal izan ziren: *Guk, geure hezkuntza* Uniformizaziorik ez; eta *Euskal hezkuntza nazionala aurrera*. Amaieran beste pankarta alternatibo bat zeramaten hainbat pertsona jarri ziren manifestazioaren buruan. *Euskal hezkuntza sistema nazionala* zeritzon pankartaren atzean zihozazenek *“protestaldiaren lelo desnazionalizatuaren aurka benetako hezkuntza sistema euskalduna”* aldarrikatu nahi izan zuten.


Manifestaldiaren deialdia egin zuten erakundeek aitortu zuten beraien artean ez dagoela erabateko adostasunik Hezkuntza ministroak aurkeztutako txostenaren edukia aztertzerakoan. Hala eta guztiz ere, guztiak kaltegarritzat jotzen dute PPk ezarri nahi duen lege berria eta inposizioaren, uniformizazioarne eta atzerakuntza-aren kontrako adierazpen garbia egin dute. Horren aurrean, defendatu eta aldarrikatzen dutena da “kalitatezko hezkuntza, euskalduna, euskararen erabilpenaren normalkuntzan aurrera egin eta egungo elebitasunetik eleantitasunera irekiko dena, desberdintasun sozialen gaitzaitzailea, integraztailea eta parte-hartzailea, guri dagokigun gizarte eta kultur eremutik, Euskal Herritik, egituratu eta antolatutako hezkuntza”.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko sare publikoko ordezkari euskaldunak kexu dira datorren urteko Lan Eskaintza Publikoaren inguruan administrazioak hartu duen neurri bat dela eta. Hizkuntz eskakizunik gabeko irakasleentzat lraleren deialdi berezia eskainiko du 2002-2003 ikasturtean, eta hori ondo ikusi dute. Aldi berean, ordea, *baztertuak* sentitu dira, beraientzat euskara maila hobetzeko R ikastaroa eskaintzeko neurri bereko esfortzurik ez duelako egin. Ordezkariek adierazi dutenez, “ados gaude erdaldunak lralen sartu eta euskara ikasteko neurriak hartzearekin, baina HE2 (Bigarren Hizkuntz Eskakizuna) dugunoi ere, R ikastaroa eskaini beharko ligukete hizkuntza hobete dezagun. Euskal Herri honetan, sarritan, euskaldunak gara kaltetuta gertatzen garen bakarrak”. Sindikatuetako informazio iturrien arabera, gutxienez 4,7 milioi euroko gastua izan daiteke batere eskakizunik gabeko ordezkari euskalduntzeko ekimenaren kostua (urte osoko liberazio bakoitzak 36.000 euro pasatxo balio du). Bestalde, irakaskuntza pribatuan maiatzaren 17, 28 eta 29rako greba deialdia egin du ELAK. Arrazoia 2002ko hitzarmenaren negoziazio haustura da. Iazko abenduan hasi ziren hitzarmena lantzen patronalarekin, baina otsailaren hautsi ziren negoziazioak. ELAren helburuak dira langileen lan baldintzen eta soldataren homologazioa lortzea; lanaldia laburtzea; hezkuntza bereziko laguntzaileen egoera hobetzea; eta Haur Hezkuntzako langileak hitzarmenean sartzea.

G A I A

Zientzia

abstraktua ala ulergarria?





Zientziaren irakaskuntza: abstraktua ala ulergarria?

Fisika, Kimika, Matematika formulak, zenbakiak, zientzialariak, teoremak, esperimentuak, laborategia, legeak zientzia edo ikasgai horiek horrelako kontzeptuekin lotu izan dira. Eta ikasle gehienentzat ez dira erakargarriak, zailak, arraroak, urrutikoak eta abstraktuak baizik.

Ikuspegi horri buelta eman nahian elkartu ziren Oreka taldean Jenaro Guisasa, Rafa Azkona, Emiliano Mujika eta Mikel Etxaniz Bigarren Hezkuntzako irakasleak duela 15 urte inguru. Hurbilagoko metodologia bat lantzen hasi ziren, irakasleek gusturago irakatsi zezaten eta ikasleek ere gogoz ikas zezaten. Osatu zuten materiala bildu eta testu liburuak argitaratu zituzten Erein argitaletxearekin, eta hainbat kongresutan izan dira euren metodologia azaltzen.

Oreka taldearen sorrera

Duela 15-16 urte Bigarren Hezkuntzan Fisika eta Kimika irakasten zebiltzan lau irakasle elkartzeko hasi ziren: Jenaro Guisasa, Rafa Azkona, Emiliano Mujika eta Mikel Etxaniz. Garai hartan euskaraz zegoen material urria zela-eta, elkarren artean materiala trukatzeko eta osatzeko hasi ziren.

Elkarretaratze haiek beste hainbat kezka eta arazo planteatzeko baliagarriak izan ziren, eta hainbat arazo komun zituztela ohartu ziren. Laurak konturatzen ziren ikasleek ez zutela interesik Fisikako eta Kimikako gaietan, oso gutxi ulertzen zutela eta askotan hormari ematen zizkiotela azalpenak. Kezka orokorra zen, guztiena, bai eskola publikoan, pribatuan zein ikastolan, eta horren inguruan hausnartzen eta eztabaidatzen hasi ziren.

Estatu mailako kongresuetara joaten hasi ziren, beste didaktika talde batzuekin harremanetan jarri ziren eta poliki-poliki euren materiala garatzen joan ziren. Taldeko bik gai horri buruzko doktorego tesia egin zuten, eta Erein argitaletxeak beren materialarekin testu liburuak argitaratu zituen. Oreka taldeak zientzia gelan aplikatzeko beste metodologia bat proposatzen du, hots, irakaskuntzan Fisikari eta Kimikari buruz dagoen ikuspuntua aldatzea.

Zientzia errealitateetik abiatzen da

Klaseetan egiten zutenetik abiatuta sortu dute metodologia berria. *“Fisikako eta Kimikako eskoletan zer egiten genuen eta zer gertatzen zitzagun komentatzen hasi ginen”* diote

Oreka taldeko kideek. *“Formulak eta legeak irakasten genizkien ikasleei, eta haiek ikasi eta aplikatu, hori egiten zuten, ezer ulertu gabe. Gure ustez, ordea, zientzia ez da hori. Zientziak badu bere abiapuntua, garapena eta emaitza, eta hori guztia ezagutu behar da, prozesu osoa. Azken finean, zientzia abentura bat da: problema bat daukagu eta problema hori ebazti egin behar dugu”*. Prozesu horren abiapuntuari ematen diote garrantzia, hots, hasierako egoera problematikoa. Egoera hori gizarteko arazo bat denez, zientziak horri erantzuna emateko balio du, hots, gizarteko gertaerekin lotuta dago. *“Askotan pentsatzen dugu Fisika eta Kimika zeruan edo ez dakit non daudela, ez dutela loturarik egunerokotasunarekin, eta hori uste okerra da. Historian zehar zientziak izan duen funtzioa aztertzen badugu, nahiko argi ikusten dugu zientziak ebazten dituen problemak errealitatearekin eta eguneroko bizitzarekin lotuta daudela”*. Adibide bat jarri frogatzen dute Oreka taldeko kideek lotura hori: Isaac Newtonnek ezagunak diren legeak asmatu eta definitu zituen, baina askotan ez dakigu, eta klaseetan ez da esplikatzen, lege horien oinarrian arazo bat zegoela. Kasu hartan, Ingalaterran garai hartan merkataritza aktibitate oso garrantzitsua zen eta itsasontziak erabiltzen ziren horretarako. Normalean kostaldean ibiltzen ziren, urrunduz gero galtzeko arriskua baitzuten. Izugarriko arazoa zeukaten norabideak hartzeko eta itsasoan orientatzeko. Arazo hori ebazten zuenari saria eskaini zitzaion. Horrela, bada, Newton

G

ikerketa horretan oinarritu zen eta arazoa konpondu zuen legea definitzea lortu zuen, eta ordainsaria irabazi. “Newtonen legearen oinarrian gizarteko arazo bat zegoen, ez zen ezezetik sortu. Guretzat hori da zientzia eta hori da eskolak ematean erakutsi behar duguna” diote ziurtasunez. “Azken finean, legeak soluzioak dira, baina hori azken pausoa da. Eta ez da hori soilik erakutsi behar, garapen osoa baizik”.

Prozedura edo ikuspegi hori ez jarraitzeak ondorio garbi bat dakarrela diote Orekako kideek: ikasleek ez dituztela beraien eguneroko bizitzako eta eskolako munduak elkarlotzen, hots, elkarren artean zerikusirik ez duten bi bide paralelo direla beraien-tzat. Adibide garbi batez azaltzen digute hori. “Oso ohikoa da gorputzen erorketaren kasua. Bi gorputz botatzen baditugu, badirudi astunena lehenago iritsiko dela lurrera. Ikasleek hori uste dute. Orduan, irakaskuntza tradizionala jarraituz formula batzuk irakasten zaizkie astuntasunak ez duela eraginik azaltzeko, berdin erortzen direla astunak direnak eta ez direnak. Masa ez da aipatzen formula horretan, eta ez bada hori esplizituki esaten, agian ikaslea ez da ohartu ere egingo masa agertzen ez

denik. Berak badaki problema hori ebazteko formula hori aplikatu behar duela, ikasiko du eta nota ona aterako du. Baina bere bizitzan zehar harri handia lehenago erortzen dela pentsatzen jarraituko du. Izan ere, formula horrek azaldutakoa ez du lotzen bizitzan zehar funtzionatzeko dituen eskema alternatiboekin”.

Sarritan unibertsitateko ikasleek horrelako oinarritzko ideia okerrak izan ditzaketela diote, eta kasu horretan, galdera pixka bat moztortuz gero edota bizitza arrunteko egoera bat jarritz gero, ez dutela hain garbi ikusten eskolan ikasitakoarekin duen lotura. Ondorioz aldatu gabe duten beren eskema propio eta okerrarekin erantzuten dute. “Hiru urtez Fisika edo Kimika ikasten aritu, azterketa guztiak gainditu, klaseko eskemak ondo sartuta eduki, eta hala ere beren eskema propioa ez dute aldatzen. Zergatik? Ez delako hasieratik azalaratu problema eta bi munduen arteko erlazioa”.

Horregatik, zientzia eta eguneroko bizitza uztartzeari izugarritzko garrantzia ematen diote. Izan ere, zientziak ez du gauza teorikoa izan behar, gelan ikasten dena soilik eta gero ezertarako balio ez duena. Alderantziz, eguneroko bizitzan gertatzen



diren hainbat gauza esplikatzeko izan behar du: bentosek nola funtziontzen duten, globo aeroestatiko bat nola ibiltzen den, zergatik jartzen duen aerosoletan 50°Ctik gora ezin dela eduki eta abar.

Testu liburuak

Ikuspegia aldatzeaz gain, hori gauzatu ahal izateko baliabideak eskaintzea da Oreka taldearen asmoa, eta testu liburuak hori gogoan izanda argitaratu dituzte.

Beste testu liburuekiko berezitasun nabarmenena irakaslearentzat duen gida da. Gida horretan adierazten dira metodologia eta ebaluazio sistema.

Oro har, egiten duten planteamenduak urrats jakin batzuk jarraitzen ditu. Lehenengo egoera problematikoko baten aurkezpena egiten da galderak eginez. Ikasleen mailara eta interesetara egokitutako problemak izan ohi dira. “Ezin ditugu Newtonen planteatzen zituen problemak aurkeztu klasean, ezin ditugu planteatu zientzialariek buruan darabiltzaten problemak, ikasleei egokitutakoak baizik. Horregatik, zubi bat egiten dugu zientziako problemen eta klasean planteatutakoen artean, hots, transposizio didaktikoa deritzana egiten dugu”. Ondoren, egoera hori gidatzeko eta ebazteko jarduera ugari planteatzen dira: eztabaidak, praktikak, talde-lanak, planteamenduak sorrarazi... Eta azkenean ondorioztatzen diren ebazpenak zientziako legeak edo printzipioak izaten dira. “Baina ikasleek badakite nondik datozen eta zertarako balio duten”.





G A I A

Zientzia

G

abstraktua ala ulergarria?

Prozesu horretan ikasleak dira protagonista eta irakaslearen zeregina garapen horretan laguntzea da. *"Beti esaten dugu neska-mutilek gehiago egin behar dutela, eta hori bultzatzen dugu. Gauzak kontatzen baino gehiago beraiei eginarazten saiatzen gara; beraiek egin dezatela ikerketa eta teorema atera".*

Lehenengo pausoa beharra sortzea dela diote, problema bat aurkeztea. Arazoa konpontzeko tresna egokiak ez dituztela ohartzen direnean, horien bila abiatzen dira, azkenean legeak edo ereduak aurkitzera edo osatzera iritsiz. *"Gertukoa duten istorio bat aurkezten diegu. Adibidez, ikasle talde bat txalupa batean itsasora joaten dela, ikasle bati giltzak erortzen zaiola eta hondoratu egiten direla. Problema edo gaia da zergatik hondoratzen diren giltzak. Ikasleak hipotesiak botatzen eta aztertzen hasten dira: koloreak eta formak ba al dute eraginik? Aztertu eta eraginik ez dutela egiaztatzen da. Masak ba al du eraginik? Gauza astunak ez dira beti hondoratzen, itsasontziak adibidez. Horrela jarraituz, ondorio batera iristen gara: flotagarritasuna baldintzatzen duena gorputzaren dentsitatea dela".*

Garrantzitsuena da ez direla hasten dentsitatea= masa/bolumena dela esanez, alderantziz baizik: beharra

sortu eta horri erantzuteko prozesua abian jarriz iristen dira legera.

Ebaluazioa ere aldatu egiten da

Planteamendu aldaketak ebaluazio sistemaren aldaketa dakar, eta hori garrantzitsua dela diote taldekideek. *"Metodologia aldatzen bada, ebaluazioa ere aldatu egin behar da. Ebaluatzeak erak ikasteko erarekin lotura eduki behar du".*

Helburuak planteatzen dituzten momentuan pentsatzen dute zer ebaluatuko duten, eta horren baitan egiten dute planteamendu orokorra. *"Ebaluazioa jarraitua da, eguneroko lanaren jarraipena egiten da eta probak sarri-sarri egiten ditugu".* Ebaluatzeaz gain, irakaslearen diagnostiko zehatza egiten dute.

Beren liburuetan, irakasle gidan, ikasgai bakoitzean ebaluaziorako eredu eta adibide bat proposatzen dute, irakasleek nondik nora joan behar duten jakin dezaten.

Emaitzak onak dira

Urte dezente daramatzate metodologia horrekin, eta pozik daude lortutako emaitzekin. *"Metodologia tradizionalarekin eskola porrot handia dagoela ikusten dugu, eta gure metodologiarekin gutxiago. Horren inguruko datuak baditugu. Inolako zailantzarik ez daukagu modu tradizionalan baino interes gehiago eta jarrera hobea sortzen dela".*

"Zientziak ebazten dituen problemak errealitatearekin eta eguneroko bizitzarekin lotuta daude. Azken finean, legeak soluzioak dira, baina hori azken pausoa da. Eta ez da hori soilik erakutsi behar, garapen osoa baizik"

Adibide praktiko bat

Ondoren, DBHko 3. mailan lantzen duten gai baten nondik norakoa agertuko digute.

Unitate didaktikoa

Nolakoak dira materialak barrutik?

Helburu didaktikoak

Unitate edo gai bakoitzean argi eduki behar da zer landu nahi den. Horretarako, asmoak helburu didaktikoe-tan enuntziatzen dira:

1. Gasekin esperimentatuz, beren ezaugarri eta propietateez jabetu, zenbait gertaera azaltzeko edo auresateko.

2. Gasen portaera azaltzeko eraiki dugun ereduaz egututa eta zenbait gertaera esplikatzeko erabili, ereduaz errealitateaz azaltzeko irudikatzen dugula ulertuz eta azalpen horiek eta gertaera errealak bereiziz.

3. Likido eta solidoen ezaugarriak esperimentatuz, gasentzat eraiki den ereduaz likido eta solidoen egokitu.

Egoera problematikoa

“Pertsona batzuk neguan Pirinioetara joan dira. Han izoztutako laku bat topatu dute eta gainean eskiatzen ibili dira. Udan, berriz, laku bera urtuta dago.”

Zer gertatu zaio izotzari? Zergatik urtu da? Zergatik urtzen da ura?

Hortik abiatuta hasten gara aztertzen ura nolako den barrutik, tenperatura aldatzen zaionean zer gertatzen zaion jakiteko.

Eskema alternatiboak detektatu

Lehen pausoa ikasleek zein eskema alternatibo dituzten eta zer dakiten jakitea izango da. Horretarako, solido, likido eta gasak zein ezaugarri dituzten idazten dute: ba al duten bolumenik, eta masarik, eta pisurik, forma finkoa ala aldakorra duten, eta bolumena finkoa ala aldakorra duten.

Jarduera hori hasieran egiten dute, eta gero, ikerketan zehar, itzuli egiten dira zuzentzeko eta osatzeko.

Gaia landu

Hasierako ebaluazio hori egiten ondoren, gas egoera aztertzen hasten dira, berriz sinpleena delako, nahiz eta ezezagunena izan.

Esperientziak eta ikerketak

Hainbat esperientzia planteatzen dira ezezagunak eta zalantzakorrak diren ezaugarriak egiaztatzeko.

1- Gasekin ba al dute bolumenik?

Laborategira joan, ontzi bat hartu, plastilinarekin hermetikoki itxi, enbutu bat jarri, ura bota eta ura ez da sartzen. Zergatik? Aireaz dagoelako. Aireaz ateratzen ez bada, ura ez da sartzen. Orduan, aireak lekua okupatzen du. Beraz, gasekin badute bolumena.

2- Gasekin ba al dute masik?

Puztutako bi globo balantza baten gainean jartzen dira eta bat zulatu egiten da. Hustutzen den heinean balantza desorekatu egiten da. Pisu gehiago du puztutakoak besteari aireaz atera zaiolako. Beraz, gasekin badute masa.

3- Gasekin forma aldakorra ala finkoa dute?

Puztutako globoek forma desberdina izan dezakete. Beraz, gasekin forma aldakorra dute.

4- Gasekin bolumena aldakorra ala finkoa dute?

Airez beteta dagoen xiringaren muturra hatzez itxi eta enboloa dezente sar daiteke, gasa konprimatuz, edo atera daiteke, gasa zabalduz, airearik atera edo sartu gabe. Gasen bolumena, beraz, aldakorra da.

5- Beste ezaugarri batzuk lantzen dira: dentsitate oso txikia, presioa, tenperaturaren eragina.

Teoria

Gasen ezaugarriak guztiz esperimentalki ikusi ondoren, teoria dator. Beraiek sortutakoa da, beraiek ondorioztatzen dutena esperimentatu dutenaren ondoren. Eta ez zaie hasieran botatzen.

Aplikaziorako ariketak

Teoria aplikatzeko hainbat ariketa egiten dira ondoren. Askotan teknikoak izaten dira, bizitzan dauzkagun tresnek nola funtzionatzen duten ikustekoak: bentosa bat, globo aerostatikoa, bizikletako puzgailua...

Ereduak

Gasak ezagututa, ondoren beren barruko egiturari buruzko ereduaz osatu behar dute ikasleek. Ereduak zientzian garrantzi handia dute eta gertuko adibide baten bidez argitzen da honen esanahia.

“Ikasle bati opari bat egin diote lagunek. Baina oparia jasotzeko, kaxa baten barruan zer dagoen asmatu egin behar du. Ezin du ireki, noski, eta barruan egon daitekeenaren irudi mental bat egiten hasten da. Baina horretarako, informazioa lortu behar du, kaxa mugituz, astinduz... Hala, agian kanikak direla pentsatzen du, baina soinua ez da beirarena, leunagoa baizik. Orduan, zilar-paperezko bolatxoak izan daitezkeela pentsatzen du. Ez daki ziur hala direnik, ezin duelako zuzenean behatu, baina daukan informazioaren arabera hala dirudi. Eboluzioa ikusten da; daukan informazioa erabiltzen du barruan egon litekeenaren ideia bat egiteko.

Informazio gehiago lortu ahala ideia aldatzen doa. Kaxa gogor astindu ondoren, bolatxoek astunagoak, potoloagoak dirudite. Beharbada plastilinazkoak izango dira, itsats daitezkeelako”.

Adibide horrekin egindakoa egiten da gasekin. Ikasleek ez dakite gasak nolakoak diren barrutik, baina badakite nola portatzen diren eta zein ezaugarri dituzten. Beraz, informazio horretatik abiatzen dira ereduaz osatzeko.

Likidoak

Gasekin egindako prozesu bera egiten da likidoekin.

Solidoak

Azkenik, solidoekin ere prozesu bera jarraitzen da.



G A I A

Zientzia

G

abstraktua ala ulergarria?



Rafa MUÑOA

Zarauzko Lizardi institutuko irakaslea

Fisika eta Kimikaren irakaskuntzan, gaiaren berezko zailtasuna dela eta, zailtasunak eta erronkak egon dira beti:

- alderdi kontzeptualetan; zeren Fisika eta Kimika natura ereduaren bidez azaltzen saiatu izan gara, eta eredu horietan esperimentatu eta ikusi ezin diren kontzeptuak ere landu behar dira: bektoreak eta beraien arteko eragiketak, atomoak eta molekulak... Esan ohi da Kimikan hiru mundu ezberdin elkartzen direla: mundu mikroskopikoa, mundu makroskopikoa eta mundu sinbolikoa.

- alderdi metodologikoetan; zeren zientzian, esperimentalaren izanik, metodologia edo irakaskuntza tradizionala erabili izan da, teorikoa. Badirudi, edo hala uste dute askok, esleitutako epelaburrean irakaskuntza tradizionala egokitzen dela ondoen irakatsi behar den kontzeptu multzo handira. Baina, esan ohi da entzuten denaren oso zati txikia gogoratzen dela, ikusten denaren proportzio handiagoa eta esperimentatzen denaren handiagoa oraindik.

Fisika eta Kimikaren irakaskuntza eta teknologia berriak

Eta horretan ginela, teknologia berriak irakaskuntzan sartzen hasi dira. Eta teknologia berrien artean, Internet. Teknologia berriak etorri eta geratu egin dira; ez dago atzerabiderik.

Teknologia berriek irakaskuntza-ikaskuntzan erabili daitezkeen aukera berriak ekarri dituzte. Baina, nola ateratekina aukera horiei?

Teknologia berriek eskainitako baliabideak

Goazen ikustera gaur egungo teknologia berriek ematen dituzten aukeren adibide batzuk.

Artikulu honetan aipatzen den softwareari buruzko informazioa Interneten aurki daiteke; horretarako, bilatzaile batera joan (Yahoo, Altavista, Google...) eta softwarearen izena idatzi. Horrela, zein web orrira joan jakingo duzue.

Hona hemen **Interactive Physics** programarekin eraikitako simulazioa, non abiadura bektoreak agertzen diren.

Kasu honetan, gorputza mugitzen ikusiko genuke eta berarekin batera abiadura bektorearen bilakaera nolakoa den.

Interactive Physics Fisikaren irakaskuntzarako dagoen software onenetakoa da.





Interneten zenbait baliabide interresgarri doan eskura daiteke zientziaren irakaskuntzarako.

OpenTeach enpresak zenbait baliabide erabiltzen uzten du. Baliabide horietan zenbait fenomeno eta konzeptu fisiko eta kimiko ikus daitezke. Hona hemen horietako bat:

zaila den esperimentu bat erreplikatzeko dugu eta lege fisikoak ondorioztatzeko aukera daukagu.


Esan bezala, **OpenTeach** etxeko zenbait simulazio eskura daude doan eta Internet Explorer edo Netscape-ren bidez ikus daitezke Java applet-ak diren programa txiki hauek.

kita; beheko ontziari pH-metro bat ere jarri zaio, uneoro pH-ren aldaketa behatzeko.



Saio hau laborategian egin daiteke. Saio birtualak duen abantaila nagusia bere azkartasuna da; klase ordu batean bi edo hiru saio ezberdin egin daitezke. Gainera, programa berak momentuan ematen du balorazio-kurba.


Eredu molekularrak mundu mikroskopiko eta ikustezinaren bisualizazioa ematen digu, atomo eta molekulen inguruko ulermena errazteko.



Badaude beste programa batzuk, ikasten laguntzea helburu dutenak. **Buruz** ikasi behar denean, asko laguntzen du ikaste prozesu hori joko eran lantzen.

Honela, **Chemical Formula Tutor** programaren helburua ez da simulazioa erakitzea, formulazioa ikasten laguntzea baizik.

Formulazioaren inguruko softwareekin hizkuntzaren arazoa planteatzen da, gehienak ingeleraz daudelako eta euskaraz ezer ez dagoelako.



Youngen simulazio horretan ikasleak zenbait aldagai (uhin luzera...) erabil ditzake fenomeno aldatzeko eta lege fisikoak ondorioztatzeko bide bat izan daiteke.

Simulazioaren bidez bestela oso

ChemLab programak kimikako laborategi birtuala jartzen du gure eskura. Laborategi birtual horrek esperimentuak erakitzeke aukerak ditu.

Kasu honetan, azido-base balorazioa egiteko ekipamendua dago erai-

Teknologia berriek Fisika eta Kimika lantzeko baliabideak eskura jartzzen dizkigute



Ikusten denez, Fisika eta Kimikako edozein gai lantzeko badaude softwareak eta era askotan laguntzen dute:

- kontzeptuak buruz ikasi behar direnean;
- ikusten ez diren objektuen itxurak ulertzeko (atomoak, molekulak);
- zientziak asmatutako objektuak fenomenoetan integratzeko (bekto-reak);
- laborategietan zailak diren (edo denbora asko eskatzen duten) fenomenoak simulatzeko;
- aldagaien manipulazioz legeak ondorioztatzeko;
- ...

Baliabideak egon badaude, baina Interneteko munduan barreiatuak. Ba al dago baliabide horiek bildu eta sailkatzen dituen erreferentzia tokirik?

Galdera horri erantzuna eman nahian, webgune bat eraiki nuen (eraikitzen ari naiz oraindik), baliabideetara joateko ataria izan daitekeena. Bere helbidea <http://www.zarautz.com/rafamunoa> da eta baliabideak kurtsoka eta gaika dituzue sailkatuak. Hor agertzen diren baliabide batzuk euskaraz daude (apunteak, ariketak...) eta beste batzuk kanpoko

loturak dira. Momentu zehatzetan laguntza eman dezake atari honek.

Alderdi metodologikoak

Teknologia berrien baliabideak hor daude eta beste berri batzuk sortzen ari dira. Baina nola erabili baliabide horiek egungo eskoletan?

Faktore metodologiko asko sartzzen dira hor jokoan.

Alde batetik, baliabide horiek gelan bertan integratzea komeniko litzateke eta *ez gela berezietan* (informatika gelak) aparte egotea. Horrela, baliabideak ikustea eta esperimenduak egitea gelako dinamikan txertaturik egongo litzateke.

Bestalde, nahiz eta gehienbat me-

todologia tradizionala erabili, baliabide horiek ematen duten aukerak ondo aprobetxatzeko metodologia erakitzaila erabili beharko litzateke batzutan, eta saioak egin gida didaktikoak jarraituz. Gida didaktiko horietan informazioa eta aktibitateen sekuentziak bildu beharko lirateke.

Baliabideak Interneten egonik, etxerako bidaltzen diren ariketetan simulazio horiek erabilitea gero eta aruntagoa izango da.

Dena den, teknologia berriekin esperimendatuz (eta askotan hanka sartuz) jakingo dugu zein den berauetan trebatzeko bidea, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan nola aplikatu jakitekoa ere bai.

G A I A
Zientzia
abstraktua ala ulergarria?



John Clegg

Londreseko hizkuntza aholkularia



Gai jakinetako irakasle askok
ez diete inoiz eskatu beraien
buruei definizio bat egiteko, eta
are gutxiago ikasleei
irakatsi



Gure
estrategia
martxan jartzeak
irakasleari
eskatzen dio
ikasleari eskatzen
zaion hizkuntza
eta ikaskuntza
eskaera nagusiak
zehaztea eta
ikasgai hori
irakasterakoan
ikasleei eskaera
horiek betetzen
lagunduko dieten
ariketak sartzea,
hots, hizkuntza
erabiltzen
irakastea

Britania Handiko eskoletan *National Literacy Strategy* izeneko estrategia jarri zuten abian orain dela lau urte. Lehen Hezkuntzako ikas-tetxeetan eta orain bi urte Bigarren Hezkuntzakoetan. Irakurketa eta idazketa mailak igotzeko saiakera da berau. Horretarako, hizkuntzaren zeharkakotasunean oinarritzen da, hau da; hizkuntza funtsezkoa da eskolan ikasi ahal izateko, baina hizkuntza ez da ohiko lau trebetasunetan (entzumena, ahokotasuna, irakurketa eta idazketa) soilik gauzitzen. Ikasteko estrategiek, ezagutza ahalbidetzen duten prozesuek eta kontzeptuek ere hizkuntzarekin harreman zuzena dute eta horiek ere irakatsi behar zaizkie ikasleei. Hori guztia da hizkuntzaren zeharkakotasuna.

John Clegg Londresko hizkuntza aholkulariak Ikastolen Elkarateak antolatutako *Euskararen erabilera* jardunaldietan aurkeztu zuen *National Literacy Strategy* eta horren inguruko xehetasunak eman dizkigu.

Zer da Ingalaterra eta Galeseko eskola guztietan ezarrita dagoen *National Literacy Strategy* delako estrategia?

Orain dela lau urte ezarri zen estrategia horren ardatza alfabetatze irakaskuntzako metodologian aldaketak eginez irakurketa eta idazketa maila igotzea da. Eta horretarako, ikasi ahal izateko funtsezkoa den hizkuntza beste modu batera landu behar da eskolan. Orain dela bi urte Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara ere zabaldu genuen eta horri KS3 (Oinarrizko 3. Fasea) deitzen diogu.

Zein izan ziren ekimen hori martxan jartzeko funtsezko arrazoiak?

Alde batetik, gobernuak partehartze zuzena eta zabala izatea metodologia horretan. Eta bestetik, lehen esan bezala, eskoletako alfabetatze maila igotzea, eta horretarako, hizkuntzaren lanketan ordura arte kontuan hartzen ez ziren hainbat alor aintzat hartzea irakasle guztiek, bai hizkuntzakoek eta baita gaikakoek ere.

Hizkuntzaren zeharkakotasuna dei al geniezaioke horri?

Bai, alfabetatzea ez da irakurtzen eta idazten ikastea soilik; entzumena eta mintzamena ere biltzen ditu eta baita ikaskuntzako hizketaren kalita-



te *alfabetatua* ere, nola ikasleen arteko hizketa hala ikasle eta irakasleen artekoa. Alfabetatzea osotasunean eskolako ikaskuntzaren oinarri moduan hartzen dugu, gaien arteko eta gaietako oinarri moduan.

Horrek zer egikizun eskatzen dio irakasleari gelan?

Estrategia martxan jartzeak irakasleari eskatzen dio ikasleari eskatzen zaion hizkuntza eta ikaskuntza eskaera nagusiak zehaztea eta ikasgai hori irakasterakoan ikasleei eskaera horiek betetzen lagunduko dieten ariketak sartzea. Beste modu batera esanda, hizkuntza erabiltzen irakastea.

Esaten ari naizena zera da: hizkuntza eskolako ikaskuntzarako beharrezkoa dela eta ikasleei ez diegula laguntzen hizkuntza behar adina erabiltzen. Hizkuntzan bereziki garrantzitsua da hizkuntza trebetasun moduan (entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena), ikasteko teknika moduan eta prozesu kognitibo eta kontzeptu moduan, bai gai espezifikoetan eta bai hizkuntza akademiko orokorrean. Orduan, hizkuntza garrantzitsua bada, irakasle guztiek jakin behar dute hizkuntza garapena eta kontzeptuzko garapena nola gertatzen den.

Zergatik diozu ikasleei ez zaiela laguntzen hizkuntza trebetasunak erabiltzen?

Ikasleei zenbait lan egitea eskatzen zaie. Maila baxuenetan, adibidez, testua irakur dezaten eskatzen zaie. Baina testua irakurtzeak zer esan nahi du? Denok dakigu horrek ikasleak hainbat gauza egiteko gai izatea esan nahi duela. Esate baterako, aurretik jakitea izenburuetatik zeri buruz joango den testua; paragrafoen egitura erabiltzea paragrafoak zeri buruz joango diren iragartzeko; lokailuak erabiltzea testuaren antolaketa logikoa jarraitzeko; hitz ezezagun baten testuingurua erabiltzea bere esanahia asmatzeko: loturak egitea izenordainen eta horien moduko aurrekarien artean; eta abar.

Garbi dago *irakurketa* kontzeptuaren azpian trebetasun gehiago ezkututzen direla eta ez dizkiegu azpitrebetasun horiek irakasten. Gauza bera gertatzen da entzumena, mintzamina, idazketa eta beste hizkuntza trebetasunekin ere. Horien guztien azpian dauden trebetasunak ikasleek beste nonbait ikasi dituztelakoan egoten gara.

Emango al dizkiguzu adibide gehiago?

Adibidez, *ikasteko tekniken* inguruan pentsatzen dugu ikasleek hainbat gauza egin behar dituztela: informazioa non aurkitu jakin (liburutegia, Internet...); liburutegien kasuan txartela erabili eta ordenagailu bidezko bilaketa egin; zerbaki sistema ulertu; liburuak gaiarentzat duen garrantzia ebaluatu (adibidez aurkibidea eta edukien aurkibidea eskaneatuz); liburuko zati garrantzitsuenak aurkitu; irakurri (aurretik aipatutako azpitrebetasunak erabiliz); liburutik oharrak jaso (lan konplexua, izatez); hainbat liburutatik idatzitako oharrak modu koherentean batu; eta abar.

Beste adibide bat da ikasleei behin eta berriz eskatzen zaiela definitzeko, sailkatzeko, auresateko, konparatzeko, kausa eta zergatia azaltzeko eta abar. Ikasleek hori guztia egin al dezakete? Ez hain erraz, esperientziak erakutsi didanez.

Eta irakaslea gai izango ote da ikasleei nola definitzen den irakasteko? Batzuetan ez. Guk geuk kontu handiz pentsatu behar izaten dut definizio bat nola egiten den. Gai jakinetako irakasle askok ez diete inoiz eskatu beraien buruei definizio bat egiteko, eta are gutxiago ikasleei irakatsi.

Zergatik gertatzen da hori?

Ez zaigulako eskatzen ikasleei funtzio kognitiboak linguistikoki nola burutzen diren argi irakastea, ez dagoelako irakaskuntza programan edo eskola liburuan eta ez gaituztelako horretarako prestatu. Eta batez ere, matematikari gisa, agian ez dugulako



Hizkuntza
beharrezkoa da
eskolako
ikaskuntzarako
eta ikasleei ez
diegu
laguntzen
behar adina
erabiltzen

Hiztegia beharrezkoa da gaiiez mintzatzeko, baina gaiaren hiztegi espezifiko ez bada, irakasleek ez dute irakasten. Ezta ama hizkuntzako irakasleek ere.

Hiztegia umezurtza da hezkuntza curriculumean: inork ez du haren ardura hartzen. Baina segurutzat jotzen al dugu ikasleek erabil dezaketela? Bai, eta ikasleei nota jaitsi edo igo egiten zaie azterketetan hiztegi hori erabiltzeagatik

pentsatzen gure lana denik matematikarako beharrezkoak diren prozesu kognitiboak eta diskurtsokoak argi irakastea.

Orduan, irakasleok zer jakin beharko genuke hizkuntzari buruz?

Irakasle guztiek hizkuntzaren eza-gutza izan beharko lukete. Haatik, ez da hain erraza zehaztea gaikako irakasleek zehazki zer jakin beharko luketen hizkuntzari buruz eta zer izan beharko lukeen soilik hizkuntza aditu-en alorrekoa.

Esate baterako, irakasle guztiek jakin behar al dute ortografia? Nire ustez bai, eta seguraski denak ados egongo dira. Eta ahoskatzen? Gaikako irakasleek esango al lukete beraien kontua denik? Eta gramatika? Gaikako irakasle askok hori beraien lana ez dela esango lukete. Eta zer esan hiztegi-az? Gaikako irakasleek gaiaren hiztegi espezifiko beraien eremua dela esango dute: automatikoki irakasten dute. Baina zer esan hiztegi orokorraz, gaiaren espezifiko ez denaz? Hiztegi hori beharrezko da gaiiez mintzatzeko, baina gaiaren hiztegi espezifiko ez denez, irakasleek ez dute irakasten.

Ezta ama hizkuntzako irakasleek ere. Hiztegia umezurtza da hezkuntza curriculumean: inork ez du bere ardura hartzen. Baina segurutzat jotzen al dugu ikasleek erabil dezaketela? Bai, eta ikasleei nota jaitsi edo igo egiten zaie azterketetan hiztegi hori erabiltzeagatik. Michael Marland (1977) EBko ikasketa buru bikainak *suposizioko irakaskuntza* (assumptive teaching) deitu zion horri. Alegia, nahiz eta nire ikasgaia ikasteko beharrezko baldintza izan ikasleek hizkuntza trebetasunak eta irakaskuntzako batzuk izatea, nik ez ditut trebetasun horiek irakasten: ikasleek badituztela segurutzat jotzen dut. Eta nik jartzen ditudan notak ikasleek dituzten trebetasunen araberakoak dira.

Zein dira ustez ikasleek badakitelako ziurtzat jo eta erabiltzen ditugun hitzak eta kontzeptuak?

Maila guztietan ez dira berdinak izango, baina zerrenda bat egin dezakegu gehien erabiltzen ditugunekin. Ziur nago gutako edozein antzeko zerrenda irudika dezakeela (zerrenda ondorengo taulan agertzen da).



accelerate	entiry	...	series
achieve	...	obtain	signify
adjacent...	feasible	obvious	similar
affect	fluctuate	occur	simultaneous
alternative	focus	...	sophisticated
analyze	formulate	passive	species
...	function	period	stable
chapter	...	perspective	...
compensate	generate	pertinent	technique
complex	guarantee	phase	technology
complicate	...	phenomenon	tense
comply...	hypothesis	...	theory
component	...	specify	...
...	identify	...	ultimate
data	ignore	region	undergo
define	ilustrate	require	...
definite	implu	restrict	valid
demonstrate	...	reverse	vary
...	magnitude	...	verbal
element	major	section	verify
emphasise	...	segment	vertical
empirical mag-	negative	select	
neticreact	notion	sequence	



Irakaslearen
hizketa musika
instrumentu bat
bezalakoa da:
hainbat gauza
egiteko erabil
daiteke; lortu nahi
den efektuaren
arabera modula
daiteke. Baina,
zoritxarrez,
gutariko askok
tonu bat edo bi
besterik ez
dakizkigu

Orduan, irakaslek zer jakin behar dute ortografia, ahoskera, gramatika, hiztegia, diskurtsoa, prozesu kognitiboak, hizkuntza trebetasunak eta azpitrebetasunak, ikasteko teknikak, ikasgelako modu interaktiboak...?

Hizkuntzaren ezaugarri gehienak jakin beharko lituzkete irakasleek; bereziki elementu linguistiko horiek baliabide kognitibo eta linguistiko moduan nola funtzionatzen duten gai horietan ezagutza gehiago izateko.

Hala ere, gauza bat da jakitea eta beste bat irakastea. Batzuen ustez hizkuntzako eta ikaskuntzako trebetasunak aditu batek irakatsi beharko lituzke.

Agian funtziona dezake, baina horren eraginak murrizak dira. Hizkuntza eta kognizioa oso sartuta daude gaietan eta gaien irakaskuntzan. Horregatik, ez da oso baliagarria izango hizkuntza trebetasunak isolatzea.

Adibide bat jarriko dizuet. Irakaslearen hizketa desberdina da irakaslearen, ikasgaiaren, irakasteko helbu-

ruaren eta abarren arabera. Behin ingelesa hizkuntza gehigarri moduan irakasten zuten irakasleentzat ikastaro bat ematen ari nintzela, irakasle batek –Ingalaterrako erdialdeko Milton Keynes-eko Bigarren Hezkuntza eskola batekoa bera- bere esperientzia kontatu zidan. Bangladeseko ikasle bat zuen, 14 bat urtekoa, eskola gustukoa ez zuena. Eskolatik alde egiten hasia zen. Ez zegoen gustura. Beraz, irakasle horrek berarekin hitz egin zuen, eta ikasleak esan zion irakasleak ez zituela ulertzen. Hori eskolan gustura ez egoteko nahikoa arrazoia da, ezta? Izango dira, bai, etxean ikaskuntzako eta irakaskuntzako hizkuntzarik erabiltzen ez duten haurrak, eta zer esanik ez gure metropolietan. Neskatoak esan zuten bazegoela ondo ulertzen zuten irakasle bat. Orduan, nire kideak irakasle horren eskolan gelaren atzealdean esertzea erabaki zuten irakasle horren hizkuntzak zein ezaugarri zuten ikusteko. Irakasleak modu berezi batean hitz egiten zuela ikusi zuten: ikasgaiaren eremu eta argibide argiak erabiltzen zituen; esaldi

John
Clegg

E

Irakasle guztiek hizkuntzaren ezagutza izan beharko lukete. Hatik, ez da hain erraza zehaztea gaikako irakasleek zehazki zer jakin beharko luketen hizkuntzari buruz eta zer izan beharko lukeen soilik hizkuntza adituen alorrekoa.



argiak eta sintaktikoki bakunak; azalpen eta prozesuen segida argiak eta ordenatuak; hiztegi ulergarria, azalpenez, ikusizko tresnez, hitz aukeraketez eta abarrez lagunduta; errepikapena; ulermena egiaztatzea; ahots goren eta argia, doinu eta tonu markatua; ikusizko tresnak; ikasleen parte-hartze osoa; ikasleen banakako lanaren kritika konstruktiboa; eta ikasleak animatzeko modu maitekorra.

Esan al dezakegu irakasle hori zerbait berezia egiten ari dela? Ez dut uste. Edozein irakaslek egin dezake, baina behar adina egiten al dute? Askok ez.

Irakaslearen hizketa musika instrumentu bat bezalakoa da: hainbat gauza egiteko erabil daiteke; lortu nahi duzun efektuaren arabera modula daiteke. Baina, zoritxarrez, gutariko askok tonu bat edo bi besterik ez dakizkigu.

KS3 estrategiara itzuliz, nola egituratzen da? Nola jarri duzue mar txan?

Hainbat mailatan antolatzen da. Ikasgelaren mailan irakasle guztiek beraien gaietan hizkuntzak dituen oinarrizko erabileretan zentratu behar dute eta ikasleei lagundu behar die erabilera horiek ulertzen eta horiei ahal den probetxurik gehien ateratzen gaia ikasteko.

Ingeleseko departamentuan, berriz, estrategiak ingeleseko irakasleei eskatzen die ingelesaren erabilerari dagokion irakaskuntza programa berriekin ohitzea; eta kontuan hartzea hizkuntza trebetasunez gain hizkuntzaren zeharkakotasuna, ikasteko teknikak eta pentsatzeko teknikak.

Eskolari dagokionez, berriz, estrategiak jarduera zehatzak burutzeko eskatzen dio; hain zuzen ere, eskolako hizkuntza eta ikaskuntzari buruzko jarduerak. Esate baterako, ikasle zaharragoek gazteagoei irakurtzen laguntzea, gurasoek laguntzea eta hizkuntza garatzeko zehar planak egitea. Eskola gehienek eskola alfabetatzeko koordinatzaile bat izendatzen dute.



Tokian tokiko hezkuntza autoritateari politikak estrategia gune horretan koordinatzea eskatzen dio. Gune-ko hezkuntza autoritateek normalean KS3ko alfabetatze koordinatzaile bat izendatzen dute hori egiteko.

Azkenik, ikuskaritzan gobernu zentraleko hezkuntza ikuskaritzak eskatzen du politikako baldintzak bere ikuskapen erregimenean sartzea.

Nola baloratzen duzue orain arte egindakoa? Arrakasta izaten ari dela esan al daiteke?

Goizegi da KS3 alfabetatze estrategiak arrakasta izango duen ala ez esateko. Hau da eskola guztietan abian dagoen lehenengo ikasturtea. Arazoak daude, batez ere ingeleseko irakasleei lan gehiena egitea eskatu zaielako eta gaikako irakasleei hizkuntza-aren inguruan egitea eskatu zaien lana ez delako nahikoa. Baina denborare-


kin estrategiak arrakasta izango duen itxura du. Aurretik zenbait ikastetxetan jarri zen egitasmo pilotuak agerian utzi ditu zein diren eskolako alfabetatze politika arrakastatsua izateko ezaugarriak.

Zein dira ezaugarri horiek?

Ezaugarri edo eragileak hamar dira: ekimenaren kudeaketa praktikan jartzea; alfabetatze programan lanean diharduen langile kopurua; eskolak zenbateraino hartzen duen estrategia anitzeko ikuspuntua; ekimena zenbateraino dagoen instituzionalizatua eskola bakoitzean; ikasgelek zenbateraino bultzatzen duten alfabetatzea; irakasleak zenbateraino jabetzen diren alfabetatzeaz eta zenbateraino zuzentzen dituzten ikasgelako aukerak alfabetatzea garatzeko; irakasleek zenbateraino egiten duten denboraren zentzuzko erabilera alfabetatze eskoletan; martxan dagoen programak zenbateraino hartzen duen lana sistema ikuskatzeko, burutzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko; parte hartzen dutenek, ikasleek barne, noraino uste duten funtzionatuko duela parte hartzeko edozein estrategiak; eskola parte-hartzaile bakoitzean tokian tokiko hezkuntzako autoritateak zenbaterainoko laguntza eman duen eta zein kalitatekoa.

Denborare-
kin estrategiak
arrakasta izango
duen itxura du.
Aurretik zenbait
ikastetxetan
jarri zen
egitasmo
pilotuak agerian
utzi ditu zein
diren eskolako
alfabetatze
politika
arrakastatsua
izateko
ezaugarriak





Kazet@ aldizkaria saritu dute

Rosa Sensaten Pedagogia saria jaso du Baztango Herrietako Eskolen proiektuak



Xabi BALLARENA
Zigako eskolako maisua
adin guztietako ikasleekin

Nora SALBOTX
Amaiurko eskolako andereñoa
Lehen Zikloko ikasleekin

Baztango Herrietako Eskolak finalista gelditu ziren Bartzelonako Rosa Sensat Fundazioaren 2001 Pedagogia Sarike-tan. www.k@zet@.org proiektuari eman diote sari hori. Bailarako eskolen artean egiten duten aldizkaria da berau, eta sortzaile eta bultzatzaileetako biren eskutik jasoko dugu egitasmoaren berri.

Baztango Herrietako Eskoletan azken hiru ikasturteetan ikasleak eta irakasleak teknologia berrietan trebatzeko apustu sakona egin da. Apustu horrek bi abiapuntu izan ditu: alde batetik, teknologia horietan trebatzeari berari ematen zaion garrantziaz jabetzen ginen eta gara, eta bai ikasle eta bai irakasleen artean zegoen hutsuneari aurre egin nahi izan diogu; eta bertetik, arlo horretan eskolarako egiten den lan proposamenarekin, oro har, ez genitozen bat.

Gure lanean eztabaida eta hausnarketa izan dira nagusi, gaur egun teknologia berriak lantzeko planteatzen zaizkigun ereduak gainditu nahia helburu izanik.

Aipatu dugun nahi horren arrazoiak anitz dira:

- Ordenagailuen aitzinean era pasiboan eta sormenik gabe azaltzea (eta gainera, irakaskuntzak hori hedatzen laguntzen du).

- Ordenagailuekiko mendetasun sentipena.

- Ordenagailuarekin burutzen diren ekintzen (prestakuntzakoak) eta ikasle eta irakasleen beharren arteko aldea.

- Kanpotik ezarritako eginbehar-tzat jotzea.

- Multimedia ekipoen erabilpen eskas eta kaskarra.

Bertze arlo batzuetarako hain hedatua den ikuspegi konstruktibista ez da, zoritxarrez, teknologia berrien irakaskuntzara hurbildu. Ikuspegi horren arabera, ikaskuntza ikasten denaren aurretiazko ezagupenak, interesak eta ingurunea kontuan harturik eraikitzen dugu, eta bertze arloetan erabiltzen dugun diskurtso eta jarduerara pedagogiko koherente hori atzenu egiten omen dugu ordenagailuen inguruko lana programatzerako orduan. Nolatan kritikatzin ditugu hain gogor haurren testu liburuak eta fitxak, eta bitartean txoratu egiten gara CD-ROM *pedagogiko* berri guztiekin? Aztertu al dugu zein irakaskuntza eredurik erantzuten dioten? Ez ote gara baztertu dugun inprimatutako gauza bera ordenagailu baten pantailan egote hutsagatik gorai patzen ari?

Idea horrek kezkatuta hasi genuen eztabaida, argi genuelarik, noski, teknologia berriak lantzea ezinbertzekoa zela. Ezinbertzekoa etorkizunerako, baina gaur egungo lan tresna aberatsenetakoa izanik. Hor dugu testu prozesadore bat, eskaintzen ahal zaigun liburutegi zabalena, diseinatzeko, marrazteko edota musika egiteko bertze tresna bat, bertzeekin harremanetan paratzeko eta baten burua ezagutarazteko baliabidea, eta, oro har, jakintza, komunikazio eta artearen mundu zabalean arras lagungarri (eta batzuetan ezinbertzeko) suertatzen den lanabesa.

Kazet @ proiektuaren atalak

K@zeta proiektua lau ataletan antolatuta dago, eta laurak ezinbertzekoak eta bana ezinak iruditzen zaizkigu:

1.- Hezkuntzaren ikuspegi konstruktibistan oinarrituta dago

Prestakuntza faltagatik batzuetan, hausnarketa faltagatik gehiengotan, ikasleekin erabiltzen den softwarea erabat desegokia suertatzen da. Ikasleentzat ekoizten diren eta eskoletan informatika curriculumean denboraren zati handiengatik lantzen ari diren programak erabat gidatuak dira. Horietan haurrak rol pasiboa du, ez du inizatiba eramaten, eta are gutxiago deus sortzen. Ikasleak programa *pedagogiko* batek eskatzen dionari erantzuten dio, estimulu-erantzun motako erlazio arriskutsu bat sorraraziz.

Programa horiek tutorearen gidaritzapean garatzen dira eta zuzentzaileak suertatzen dira, aspalditik lantzen den ikuspegi konstruktibistatik urrunduz. Tutoretzan oinarritzen direnez (Yábar, 1995), kontzeptuzko edukien transmisore hutsak bilakatzen dira, bilatzen dugun kutsu ikertzaitetik oso bestelakoak.

2.- Nekazaritza ingurunea teknologia berrien demokratizaziorantz doa

Haurrek zer dakiten eta bere familia ingurunean zer jakiten ahal duten kontuan harturik eta abiapuntua hori izanik, eskolak ez du horretan geratu behar, haratago joan beharko du, batzuetan familiaren baitan ezagutuko ez lituzketen tresnak haurrei emanez (Solé, 2001).

Sareak mundua ezagutzeko eta gu geu munduaren aitzinean ezagutarazteko eskaintzen duen aukera hori inori ukatzen ahal ez zaionaren uste osoak ere, **Kazetarekin** ekin diogun bideari jarraipena emateko arrazoiak ematen dizkigu. Herrien arteko elkartasuna, kultur aniztasuna, giza eskubideak, gu bezalakoak ez direnekiko begirunea... eta horrelako ideiak gero eta beharrezkoagoak

Kokapen gisara...

Baztango Herrietako Eskolak izenpean Baztango herri txikietan (800 eta 200 biztanle bitartekoetan, alegia) kokatzen diren hamar eskola publikoak biltzen dira. Eskola horietan klaustroak irakasle batekin edo birekin osatzen dira, eta kasu bakar batean hirurekin. Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Irurita, Oronoz eta Zigako eskoletan adin ezberdinetako ikasleek gela bateratuetan ikasten dute, haur kopuruen arabera banatuz. Horrela izaki, normalki Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa gela batean biltzen dira, eta bertze guztiak, 6. mailara arte, bertze gelan. Ziga, Arraioz eta Azpilkuetako ikastetxeetan gela bakarrean biltzen dira ikasle guztiak.

Eskola horiek guztiak, bertze anitz zonaldeetan ez bezala, erabat autonomoak dira, ez daude zentro bakar gisa antolatuta, baina irakasleen erabakiz, astean behin biltzen da lan talde osoa ekintzak elkarrekin koordinatzeko asmoz.

Horrela, teknologia berrien inguruan burututako esperientzia guztiak eta **Kazeta** bera bilkura horien fruitu dira:

- 1995/96 ikasturtean lehenbiziko konputagailuak heldu ziren eskoletara: testu prozesadoreak eta Adibu eta antzeko programak lantzen dira.

- 1997/98 ikasturtean **cfnavarra.es** lotura egin zen bi eskoletan eta e-maila lantzen hasten da.

- 1998/99 ikasturtean lotura eskola gehiagotara zabaldu zen: eskolen arteko txalupen urperatze lehiaketak, txata eta Html hizkuntza lantzen dira batik bat.

- 1999/00 ikasturtean eskola guztietan bada lotura: ziber-ipuina proiektua lantzen da (hamar eskoletako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen artean ipuin bakar bat ekoiztea, harremanetarako tresna e-maila izanik).

- 2000/01 ikasturtean eskola guztietan multimedia ekipoak nahiko osatuta daude; inprimagailua, eskanerra, mikrofonoak... eta **Kazetari** hasiera eman zaio, hamar eskoletako ikasle eta irakasle guztion partaidetzarekin.



dira bizi garen gizartean, eta bitarteko ezin hobea dute Interneten (hezitzai-leok nahi izanez gero).

3.- Ikasleen lana gizarteratzen du

"Ikuspegi konstruktibistak ikaskuntza prozesua etengabe eraikitzen dagoen prozesutzat ulertzen du; hau da, ez dela kanpo ideien bidez ezarria, ezta bat-bateko garapen eta garapen autonomoaren bidez ere, elkarrekin tza testuinguru batean baizik [...] "txoko kulturala" kontzeptuak ingurune kulturala ere zaindu beharrekoa dela adierazi nahi du..." (A. Teberosky, 2001).

Alde batetik, ezinbertzekoa da eskola eta bere ingurunearen arteko lotura izatea, eskola geure gizartearekin zerikusirik ez duen erakunde zaharkitu eta baliogabetzat jotzea nahi ez badugu. Ezinbertzekoa da, beraz, eskola-gizartea loturak jorratzea.

Bertzalde, haurrek egiten dituzten lanei zentzua ematen die gizarteak. Gure ustetan, eskolan egindako lanek zentzua dute baldin eta haurrek baldin badakite zertarako balioko dieten eskolatik kanpo.

Horrekin ez dugu erran nahi eskolan etxean egiten diren gauza berdinak egin behar direnik (kasu horretan bietako bat sobera legoke, eta argi dago zein), eskolan egiten diren gauzek hortik kanpo zentzua izan behar dutela baizik.

4.- Ikasleen eta irakasleen trebakuntza teknologia berrietan

Proiektu hau sortzeko orduan bi irakaskuntza prozesu zabaldu nahi izan ditugu; alde batetik geure ikasleena, eta bertzetik beraien irakasleena, geurea, alegia.

Kazeta proiektuan 3 eta 12 urte bitarteko gure **ikasle** guztiek hartzen dute parte. Proiektuaren planteamendua zabala da erabat, edozein adinetako ikasleak gero aldizkarian argitaratuko den edozein lan mota egin dezake. Lan horiek egiteko e-maila, entziklopedia elektronikoa, Internet... erabiltzen dituzte, horrela, ordenagailuen praktikotasuna eta gizakion zerbitzurako tresna gisa duen balioa landuz.

Kazetak lan mota anitz eskaintzen eta eskatzen dizkio horretan dabile-nari, bai ikasleari eta baita irakasleari ere. Gainera, ikaskuntza garapenerako tresna ezin hobea da; haurrei e-mail bat igortzen laguntzetik hasi, eta gelan hurrekin landutako kantu bat web orrialdean sartu edota web orrialdea bera diseinatu eta editatzea bezalako lanetan murgiltzera ailegatu artean, pauso anitz eman daitezke proiektu bakar batean oinarrituz, geure beharretara erabat loturik joanen den proiektu batean.

Ikaskuntza erabat esanguratsua suertatzen da alde horretatik. Izan ere, **irakasleek** mementoan dituzten beharrei erantzuten dien prestakuntza jasotzen baitute eta, gainera, klaustroan dagoen aniztasuna kontuan hartuko duen irakaskuntza izanen da. Prestakuntza hori lankideen artekoa da, gehiago dakitenek gutxiago dakitenei erakusten diete. Gero, bakoitzaren esku dago ikasitakoa praktikara eramatea, baina gogora dezagun nahitaezkoa dela, ikasleen lanak argitara eman behar badira.

Ondorio positiboak atera ditugu

Honela, bada, gure proposamena arras positibotzat jotzen dugu orain arteko jardueran:

- Esanguratsua da arras, ikaslearen eta irakaslearen interesetara erabat lotzen baita.

- Ikaskuntza garatuz doa, ez da

programa zehatz bat ezagutzearekin agortzen, baizik eta pixkanaka lan konplexuagoak egiteko aukera eskaintzen du.

- Bereganatutakoak praktikotasun zuzena izanik, ez da alde batera uzten ikastaldia akitutakoan.

- Lankide batzuk bertzeen irakasle bihurtzen dira, horrek dakarren gutziarekin: bertzearen beharren eta gai horrekiko prestakuntza mailaren eza-gutza...

- Ikasitakoa erakutsi beharrak lanarekiko konpromiso berezia eskatzen die irakasleei eta ikasitakoaren gaineko hausnarketa dakar.

- Lanari zentzua emanen dion tresna sortuta dago, **Kazeta** alegia, edo hobeki erranda, lan egin behar da tresna hura denon artean sortu edo zabaltzeko.

- Sozializatzen den lana da eta, gainera, denona da (garbi dago horrek lanarekiko konpromiso maila handiagotzen duela).

Horiek izanen lirateke Rosa Sensat 2001eko pedagogia sariketan finalista geratu den gure proiektuaren ardatz nagusiak. Proiektuaren aitzineko edizioak eta ikasturte honetan burutzen ari garenetik sortutako lana www.kazeta.org orrialdean ikusi daiteke.

Informazio gehiago nahi izanez gero, gurekin harremanetan paratu zaitezketen ondoko posta elektronikoa hauetan:

cpziga@pnte.cfnavarra.es

cpamaiur@pnte.cfnavarra.es





Euskal hezitzaileok geure prestakuntza,
geure materialgintza, eta nola ez,
geure heziketarako aldizkaria

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

30 euro

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



Argazkiak eta Matematika



Jesus Mari GOÑI
EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

2001eko uztaileko Hik Hasi Udako Topaketen barruan *Niri ere ez zait Matematika gustatzen* ikastaroa burutu zen. Bertan *argazki-rallya* izeneko jarduera antolatu genuen.


Artikulu honen baten batera ikus daitezkeen argazkiak saio hartan jasotako materialaren zati dira. Jarduera haren helburua gure ingurune hurbilean Matematikak duen presentzia beharrezkoa zen. Matematika *zeruan* dauden ideiekin erlazionatzeko ohiturari edo joerari kontra egitea zen gure asmoa jarduera hura antolatu genuenean; ho-

riela, *Lurrean* ere Matematikarekin zerikusizuzena duten hainbat eta hainbat elementu, egoera eta informazio egon badaudela sumarazteko.

Matematika horizontala deitzen zaio Matematikaren alderdi esperimental honi, eta beste batzuek espe-

rientzia matematikoa esaten diote. Ezagutza piramide baten antza duen zer bait omen da, eta jakina da piramidearen oina dela gorputz horri oreka ematen diona. Bestela esanda, oina txikia bada zaila da piramide altua egitea iraultzeko arriskutik kanpo egon gabe.

Abstrakzioa



Piramide egonkorra



Piramide ezegonkorra

Esperientzia

Abstrakzioak gora egingo du baldin eta oina sendoa bada. Uste horretan sinetsita ekin genion jarduera hari. Helburua Matematika ikusten ikastea zen; gure ingurune hurbilean dagoen Matematika; Matematikari buruz dugun ezagutza horizontala, esperimental, alegia, zabaltzea.

Ikastaroan parte hartu zutenak hiruzpalau kideko taldetan banatu ziren eta talde bakoitzak argazki kamera bat jaso zuen. Donostiako Ibaeta-Antigua auzoetan barrena paseatu eta argazkiak atera ondoren, argazkiekin erakusketa bat antolatu genuen. Hemen ikusten diren argazkiak erakusketa horretatik aukeratutakoak dira.

Ea zuetako norbait animatzen den horrelako beste zerbait antolatzera. Animo. ●



Teknologia Berriak




Softwarearen azterketa eta sailkapena

Ordenagailua erabiltzeak beldurra eraten al dizu? Bere hortzak bilatzera gonbidatzen zaitut. Har itzazu hamar minutu eta ea aurkitzen dizkion. Zure ordenagailuak hortzik ez badu, lasai erabil dezakezu: ez zaude arriskuan. Ni ere nireari bilatzen saiatu nintzen, baina ez nizkion aurkitu.

Maiz esan dut teknologia berrien moda bizitzen ari garela, eta horregatik, ikastetxe guztietan sartzen ari direla. Ordenagailuak dira teknologia berrien adierazgarri onenak eta gure buruari zera galdetu behar diogu: ea hezkuntzan aplikagarriak diren edo ez. Ordenagailuak gela barruan erabili baino lehen, ondoko aldagaiak izan behar ditugu kontuan:

Softwarearen erabilpenaren helburua: hau da, zergatik erabiltzen dugu software bat beste material batzuen ordez? Erabiliko dugun softwarea mate-



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan trebatua

rial didaktikorik hoberena al da? Beste material didaktiko egokiagoak gure esku baldin badaude, beharbada ez dago ordenagailua erabiltzeko beharrik.

Irakasgaiaren helburua: irakasgaiaren helburuen artean ba al dago softwarearen helburuarekin bat datorrenik?

Testuingurua: hau da, zein testuingurutan ezarriko da softwarea? Kasu honetan bost aldagai bereiztu nahi dira:

Auzoa: zein ezaugarri ditu auzoak?

Ikastetxea: zein da gai honi buruzko ikastetxeak duen politika? Teknologia berriak gelatan sartzearen alde edo

aurka dago? Zein baliabide ditu? Zein ordenagailu mota? Interneteko konexiorik ba al dauka?

Irakasleak: teknologia berriak erabiltzen dituzte? Teknologia berriak erabili nahi al dituzte? Ba al dakite teknologia berriak curriculumean nola integratu?

Ikasleak: zein ikasle mota ditugu eskolan? Zein adinetakoak? Teknologia berrietan trebatuak al dira? Etxean ordenagailurik ba al dute?

Iraupena: zenbat denbora iraungo du softwarearen erabilerak?

Softwarearen estrategia didaktikoa: zein ikuskera dago softwarearen atzean? Konduktista? Kognitibista?...

Jarduerak: zein motatako jarduerak aurkezten ditu programak? Bakarka lan egitekoak? Taldetan lan egitekoak? Sagua ala teklatura erabili behar dute? Oroimena ala ikaste esangarria sustatzen dute? Gauzak erlazionatu behar al dituzte?...

Ebaluazioa: Atal honetan bi aldagai bereiztu behar dira:

Ikaslearen ebaluazioa: ikaslea ebaluatzeko aukera al du softwareak? Zein motatako ebaluazioa egiten du softwareak? Nola ebaluatzen dio irakasleak ikasleari softwarea erabili eta gero? Ba al du zentzurik ikasleen erabilera ebaluatzeak?...


Softwarearen ebaluazioa: nola jakin dezakegu softwarea ona den ala ez? Ba al dugu softwarea ebaluatzeko modurik? Gure xedeak betetzen ditu softwareak? Komenigarria al da ikasleentzat? Taldeka lan egiteko aukerarik ematen du?

Software bat erabili baino lehen kontuan izan behar dugu ordenagailuek hainbat muga dituztela hezkuntza arloan. Adibidez, ezin dute informazioa interpretatu, laburtu, ebaluatu, beste testuinguruan aplikatu eta abar. Dena den, hezkuntzarako baliagarria izan daiteke. Eskuarki aurki ditzakegun programa motei buruz hitz egingo dugu jarraian:

- **Praktika eta errefortzu programak:** hauek egin ziren lehen programa dira (gaur egun ere egiten dira). Programen sortzaileek ikasleak gai konkretu baten jakitun direla aintzat harturik, irakatsi behar denaren programazioa egiten dute. Zer esan nahi du horrek? Ikasleak ordenagailua erabili baino lehen gai horri dagokion ezaguera erabat antolatuta dagoela: ezaguera ez ezik, ikasten duten bidea ere zehaztuta dago.

Gauzak horrela, sortzen zaidan galdera hau da: ikasle guztiek modu berean ikasten dute? Programa hauek irakaskuntza osatzeko balio dute, hau da, errefortzu gisa erabil ditzakegu? Softwareak jarduerak errepikatu egiten ditu ikasleak ondo burutu arte. Prozesuei buruz ez digu ezer esaten. Ikasleak ondo erantzuten badu, errefortzu positiboa lortuko du, eta gaizki erantzun zero ordenagailuak zuzendu egiten dio. Software honi esker trebetasun batzuk eskura ditzakete, baina ezin da ikasketa maila handia lortu.

- **Ordenagailuz lagunduriko irakaskuntza:** hauek praktika eta errefortzu programak baino osatuagoak dira. Irakaskuntza guztiaren arduradun bihurtzen dira. Programatzaileek ikaskuntzaren kontzeptu lineala erabiltzen dute; beraz, ikasketak gehigarriak dira, hau da, ezin da ikasketa batekin hasi aurrekoa ikasi dela frogatu arte. Bestal-



de, ikasle eredu bat sortzen dute erreferentzia gisa erabiltzeko. Kontuan izan behar dugu ikasle ereduaren bidez finkatzen direla edukiak, helburuak, ikaskuntza prozesua eta ikaskuntza erritmoa, besteak beste. Softwarearekin hasten denean ikasleak azterketa txiki bat egin behar du programak bere maila jakin dezan, eta hortik aurrera bere irakaskuntza prozesutik eramaten du. Ikaslearen erantzunak eta ikasle ereduaren erantzunak parekatzen dira momentu bakoitzean. Beraz, ikaslearen erantzunak ikasle ereduaren erantzunen mailaraino ez badira iristen, softwarearen bidez jakinaren gainean jartzen zaio. Ondorioz, ikasle guztiak ikasle ereduaren antzekoak direla suposatzen da. Nire ustez hori akats handia da, ikasle mota asko baititugu. Hori dela eta, nola pareka dezakegu ikasle bakoitza ikasle eredu bakarrarekin?

- **Simulazioak:** programa hauek oso baliagarriak dira eskolan egin ezin diren praktikak burutzeko. Adibidez, Fisikako jarduerak. Nola aldatzen da abiadura marruskadura aldatzen badugu? Zein da lurrean eta ilargian jauzi egitearen arteko desberdintasuna? Zer gertatuko litzateke Poloetako izotz urtuko balitz? Ba al du zerikusirik egunaren iraupenak Poloetako izotza urtzearekin?

Elektrizitatearen alorrean, 1000 voltetako korrontea baldin badugu zein motatako erresistentzia behar dugu 60 wateko bonbila bat ez erretzeko? Sukalde bateko instalazio elektrikoa egiterakoan, zer gerta daiteke kableak bi milimetroko sekzioa baldin badute?

Simulazioak Kimikan ere erabil daitezke. Zer gertatuko litzateke hidrogenoa, oxigenoa eta sufrea erreakzionaraziko bagenu?

Biologian kasu, zer gertatuko litzateke ekosistema batean intsektu zehatz bat kenduko bagenu? Leku batean basoa botatzen badugu, nola aldatzen da eguraldia?

Zehar lerroetarako ere balio dute simulazioek. Adibidez, gure hortzak nola hondatzen dira zaintzen ez baditugu?

Eta honelaxe jarrai nezake beste gai batzuekin. Beraz, praktika batzuk egiterakoan programa hauek onuragarriak direla esan daiteke.

Hala eta guztiz ere, goian aipatu ditudan mugak azpimarratu nahi ditut. Kontuan izan behar dugu ordenagailuek algoritmoen esker egiten dutela lan eta gaur egun hori baino gehiago ezin zaie eskatu.

Etorkizunak zer ekarriko digun ez dakigu; ordura arte, dauden programak aztertu behar ditugu, ea gure helburuak betetzeko baliagarriak diren ala ez jakiteko. ●



Hik Hasi Udako Topaketak: 700dik gora dira dagoeneko izana eman dutenak

Inoiz baino jende gehiagok eman du izena uztailean ospatuko diren **hik hasi** Udako Topaketa Pedagogikoetan. 30 ikastaroren eskaintza zabala egin da eta jendearen erantzuna oso ona izan da. Hala ere, bi ikastaro bertan behera geratu dira.

Beteta dauden ikastaroak

2.- Web orria, 3.- Klik hastapena, 5.- Power Point, 6.- Informatika musikala, 7.- Musika proposamenak, 8.- Aho-tsaren berreziketa, 10.- Antzerkia eskolan, 11.- Munduko dantzak, 12.- Psikomotrizitatea, 13.- Euskaraz jolasten, 14.- Jolas kooperatiboak, 16.- Ahozkoaren didaktika...

Bikoiztuko diren taldeak

Eskaera handiari erantzun nahian, *“Antzerkia eskolan”* eta *“Euskaraz jolasten”* ikastaroak bikoiztu egin dira. Hori dela eta, bi ikastaro hauetan matrikulatzeko aukera dago.

Gauza bera egin nahi dugu *“Informatika musikala”* deritzan ikastaroarekin baina zailtasunak handiak dira eta izena eman duen askok ezingo du parte hartu.

Lekua duten ikastaroak

Maiatzaren 3an bukatu zen matrikula egiteko epea eta aipatu bezala, hainbat ikastaro beteta gelditu dira. Hala ere, beste zenbaitetan, kopuru mugatukoak badira ere, oraindik badago lekua, eta horietan izena emateko aukerabadago. Beraz, animazaitzete. Kopuru mugatukoak izanik lekua duten

ikastaroak hauek dira:

- 4.- Klik sakontzea (5 plaza)
- 9.- Diafreo (2 p)
- 10.- Antzerkia eskolan (5 p)
- 13.- Euskaraz jolasten (6 p)
- 21.- Adimena berezko haurrak (8 p)
- 23.- Heriotza heziketan (3 p)
- 24.- Familia berriekin lanean (3 p)
- 28.- Afektibitatea eta Sexualitatea

Kopuru mugaturik ez duten ikastaroak

Ikastaro hauetan matrikulatzeko aukera dago: 1.- Gardner. Adimen barkarra ala adimen ugari?, 15.- Hizkuntzen curriculum bateratua, 18.- Literatur txokoa: Lauaxeta, Bernardo Atxaga eta Harkaitz Cano, eta 30.- Antzuolako proiektua.

Aldaketak eta berrikuntzak

Hizkuntzen curriculum bateratua ikastaroan hainbat aldaketa eta hobekuntza egon dira egitarauari dagokionez. Kataluniako zenbait hizlari ekartzeko ahaleginak bere fruituak eman ditu eta beraien ekarpen interesgarriak ikastaroa osatu eta aberastu du. Ikastaro honetan oraindik ere lekua badagonez, matrikulatzeko aukera baduzue eta horretara animatzen zaituztegu. Honako programa izango du ikastaroak:

Uztailak 2

- Hizkuntzen kudeaketa ekologikoko baldintzak. Gai osoari sarrera.
- Pertsona eleantza: kontzeptu berria eta Hizkuntzaren ikuspegi epistemologikoa hizkuntzen kudeaketa ekologikoan.

- * **Pili Sagasta** eta * **Matilde Sainz**, Mondragon Unibertsitateko irakasleak
 - Alderdi metodologikoak.
- * **Lurdes Etxeberria**, Kurtzeberri eskolako irakaslea
 - Hizkuntzen curriculum bateraturako proposamena.
- * **Rosa M^a Arano**, Txingudi ikastolako irakaslea

Uztailak 3

- Curriculumeko hizkuntzen estatusa eta hizkuntzen curriculum bateratua.
- * **Montserrat Ferrer**, DBHko irakasle eta Jaume I unibertsitateko irakaslea
 - Curriculum bateratuaren antolaketa. Proposamena.
- * **Montserrat Ferrer**
 - Mahai ingurua: hizkuntzen curriculum bateratua. Partaideak:
- * **Pili Sagasta**, **Montserrat Ferrer**, **Begoña Ocio** eta **Rosa M^a Arano**.
Moderatzailea: **Matilde Sainz**

Uztailak 4

- Barcelonako “Vila Olimpica” eskolako curriculum bateratua. Esperientzia Eleantza.
- * **Rosa M^a Ramirez Palau** eta * **Teresa Serra Santasusana**, Vila Olimpica eskolako irakasleak
 - Idatzizko adierazpena ebaluatzeko irizpide bateratuak, Begoñazpi ikastolako esperientzia.
- * **Begoña Ocio**, Andra Mari Magisteritza eskolako irakaslea
- * **M^a Karmen Landajo**, Begoñazpiko irakaslea

Arratsaldetako saioak

Hurrengo aldizkarian zehaztuko dira zenbat saio eta zein gairi buruzkoak izango diren.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak maiatza

0-3 Mahaiak ez du egoki ikusten haur eskolen dekretuaren zirriborroa

0-3 urte bitarteko Hezkuntzaren Defentsarako Mahaiak ez du ontzat ematen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak haur eskolentzat egin duen dekretu zirriborroa. Egindako balorazioaren arabera zirriborroak ez du 0-3 zikloaren izaera hezgarria bermatzen; Familiei Laguntzeko Plana behin ere berriz aipatzen da 0-3 haurrek hezkuntzarako duten eskubidea ahaztuz; ez da eredu hezitzaile bezala definitzen, izaera soziala, asistentziala eta hezitzailea duen zerbitzu bezala baikik; ez du langileen profil profesionala hezkuntza ikuspegitik definitzen; ez du bermatzen ikasleek euskara ikasiko dutenik, langileek hizkuntz eskakizunei buruz ez delarik

ezer aipatzen; ez da haur eskolen mapa eskolarraz hitz egiten; eta sareen arteko desoreka handitu egiten du; arriskuan jartzen ditu dagoeneko martxan dauden 2 urteko gelak; eta ez zaie irtenbidea ematen historikoki ziklo hau eskaini duten haur eskolei. Laburbilduz, 0-3 zikloa hezkuntza sistematik kanpo uzten dutela ondorioztatu dute, eta behar bezala antolatu eta arautzeko ordeztzainako haurtzaindegien filosofiara itzultzea ekar lezakeela.

Balorazio hori egin ondoren, hainbat emendakin aurkeztu ditu. Eta aldatarik egiten ez badute, maiatzaren bukaeran mobilizazioak egingo dituztela iragarri dute.

Ikastetxea, kalitatearen gune jardunaldiak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatuta *Ikastetxea, kalitatearen gune* jardunaldiak ospatuko dira **maiatzak 20 eta 21**ean Bilboko Euskaldu-na Jauregian.

Jardunaldiak sei eremuren inguruan eratuko dira eta gaiak honako hauek izango dira:

1. Hezkuntza komunitatea
2. Eskolako antolamendua
3. Eskolako curriculum
4. Promozioa, titulazioa et ebaluazioa
5. Ikastetxea, gizarteratzeko esparru
6. Hezkuntza eleanitza

Izena emateko epea: maiatzaren 13a arte. Nahiz eta dohainik izan, izen ematea derrigorrezkoa da, parte-hartzaile kopurua mugatua izanik.

Informazio gehiagorako:

B01 Bilbao-Abando Berritzegunea
Tolosa, 6 - 48002 Bilbao
e-posta: kalitatea@bilbao.hezkuntza.net

Tel.: 94 470 35 47

Faxa: 94 444 96 44



0-3 Mahaiak prentsaurrekoa eman zuen haur eskolen dekretuaren balorazioaren berri emateko.

Gipuzkoako Hezkuntza Berriztatze Esperientzien I. Jardunaldiak Donostian

Gipuzkoako Berritzeguneek antolatuta **maiatzaren 29, 30 eta 31n Gipuzkoako Hezkuntza Berriztatze Esperientzien I. Jardunaldiak** egingo dira Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Lehenengo aldiz ospatuko diren jardunaldi hauetan

Hiru egunetan zehar, goiz eta arratsaldean, hainbat ikastetxetako esperientziak aurkeztuko dira eta horiek osatuko dute jardunaldien ardatz nagusia. Esperientziak gai ugariaren ingurukoak izango dira: hizkuntza, ele-

aniztasuna, ikastetxetako proiektuak, ingurumena, kalitatea, aniztasuna, elkarbizitza, teknologia berriak...

Guztira 25 ikastetxe ingurutako esperientziak ezagutaraziko dira eta Berritzeguneetako arduradunek ere aurkezpenak egingo dituzte. Horrez gain, hainbat hitzaldi ere entzungai izanen dira.

Matrikula epea maiatzaren 20an bukatzen da.

Informazio gehiagorako:

www.gipuztik.net

Haur txikiak eta hiriak aztergai izango dira maiatzaren 25ean Bilbon

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Sailak "Herri-tar txikiak. Kalitatea haurtzaroan: Europako parametroak" izeneko jardunaldia antolatu du maiatzaren 25erako. Bilbo-ko Guggeinheimeko auditorioan izanen da. Gizarte Gaietako zuzendaritza kargua duen Angel Baorekin mintzatu gara jardunaldiaren zioak eta helburuak jakin asmoz.

Zein izan da jardunaldi hau antolatzeko motibo nagusia?

Orain arte EAEn ikuspegi sozialetik haurtzaroaren eremuan egin dena ez dela nahikoa ikusi dugu. Hezkuntza ikuspegitik begiratu, 0-3 etapa oraindik arautu gabe dago. Orokorrean 0-2 urteko haurren %20 baino ez dago eskolatua, eta eskaintzaren %70-80 pribatua da. Alderdi sozialetik ikusita, haurrek hiritar bezala duten eskubidea eta hiriak beraien neurri moldatua egoteko beharraren sentsibilitatea ez da nahikoa.

Hortik abiatuta eta ikuspegi sozialari helduz, planteamendu orokor bat egin dugu. Horren barruan hainbat ekintza jarri ditugu abian eta horietako bat izango da jardunaldi hau.

Zein da haurtzaroari begira egiten duzuen planteamendu orokorra?

Haurrak kontuan hartuko dituen eta errespetatu dituen espazio bat, hiri bat, gizarte bat nahi dugu, hots, haurrei egokitutako zerbitzuak eskainiko dituen. Haur txikiek parte-hartzaileak izan behar dute gizartean eta gogoan eduki behar dugu pertsona garrantzitsuak direla.

Jardunaldietan haurtzaroa ikuspegi sozialetik landuko da batik bat, ez hezkuntza ikuspegitik.

Zein kriterio erabili duzue hizlariak hautatzeko?

Gonbidatu ditugun pertsonak haurren eskubideen alde lanean ari direnak, ekarpen berriak egin dituztenak eta hirian haurrei eman behar zaizkien zerbitzuen hausnarketaren inguruan punta-puntan dabilzanak dira.

Nori dago zuzendua?

Bereziki haurtzaroarekin zerikusia duten instituzioetako eta erakundeetako pertsonei: udaletxeetako teknikariak, arduradunak eta zinegotziak, sindikatu etako pertsonak, hezitzaileak... Eta baita interesa duten eta zerbait eskain dezaketen guztiei ere.

Udaletxeetako pertsonen presentzia indartu nahi dugu, lan handia egin dezaketelako hiriak haurrei egokitze-ko garaian eta haurrei egokitutako zerbitzuak eskaintzeko orduan.

Jardunaldiaz aparte, zein beste ekintza jarri dituzue martxan?

Eusko Jaurlaritzan haurtzaroari bideratutako batzorde berri bat sortu dugu. Haurrekin lan egiten esperientzia duten erakundeekin izango du harremana batzordeak.

Momentuz, jardunaldiez gain, Haurren eta Nerabeen Babeserako Legea garatzeko konpromisoa hartu dugu. Haur Eskolen antolaketa orokorra egiten ere ari gara Hezkuntza Sailarekin batera. Eta horri loturik, 0-3 dekretuaren zehazte lanetan ere ari gara gainontzeko eragileekin batera.

Nola dago dekretua momentu honetan?

Orain zehazten ari gara eta erakunde guztiekin, sindikatuarekin, 0-3 Mahaiarekin, guraso elkarteekin eta patronalarekin eztabaidatzen. Maiatzerako aterata egon behar luke datorren ikasturtean udal haur eskola publikoek fi-



Angel Bao Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako zuzendaria.

nantzaketa edukitzea nahi bada.

Bi alderdi nagusi ditu eta lehenengoan adostasuna nahiko zabala da; hau da, denok ados gaude haur eskolek behar dituzten kalitatezko baldintzak eta hezkuntza kalitateak arautzearekin.

Bigarren alderdia diru laguntzei dagokie, eta kasu horretan lehenetsunak ezartzeko garaian ez dago erabateko adostasunik. Batzuk erabateko publikotasuna defendatzen dugu, eta beste batzuk gutxiago.

Hezkuntza Saila, Gizarte Gaietako Saila, Lan Saila... zein da bakoitzaren pisua?

Haurren hezkuntza eskubideari ematen diogu lehenetsuna, eta horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu Hezkuntza Sailak etapa hori arautzea. Noski, familiaren kontzeptua ere hor dago. Kontziente gara familiak behar bat duela, baina hori ez da garrantzitsua, haurren hezkuntza eskubidea baizik. Ikuspegi asistentziala osagarria izango litzateke.

Kulturaren koloreak heziketaren eskuetan jardunaldiak Bilbon

Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaritzak antolatuta Bilbon *Kulturaren koloreak heziketaren eskuetan* jardunaldiak egingo dira **maiatzaren 18an**. Euskadiko inmigrazioa eta hezkuntzan dagoen interkulturalitatea (irtenbideak, akatsak eta aurrerapenak) aztertu eta ezagutuko dira. E-torkinen egungo errealitatea zein den aztertuko da eta hezkuntzak duen garrantzia gai horretan.

Hizlariak hauek izango dira:

- Omar Oker, Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio zuzendaria.

- Irakaskuntzako bost sindikatuetako ordezkariak: EILAS, LAB, CCOO, UGT eta ELA.

- Euskal Eskola Publikoko Gurasoen Elkartearen ordezkariak.

- Adituak eta ikastetxetako zuzendariak.

Lekua: Bidebarrieta liburutegia
Bidebarrieta kalea, 4
Bilbo

Eguna: maiatzak 18

Ordua: 9:30 - 13:30

Lanbide Heziketa eta lan mundua euskalduntzeko plangintza orokor baten beharra ikusi da



Irakaskuntzako eta enpresa arloko ordezkariak bildu dira LABek antolatutako jardunaldietan.

Apirilaren bukaeran *Lanbide Heziketa eta lan mundua euskaraz* izeneko jardunaldiak burutu ostean, antolatzaile izan den LAB sindikatuak balorazio positiboa egin du. Hainbat esparrutako 110 lagunek hartu dute parte, besteak beste, ikastetxeetako, enpresetako eta sindikatuetakoen kideek, material didaktikoa lantzen ari direnek eta Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendariak.

Aurkeztutako ponentziak eta lan taldeetan egindako eztabaidak etorkizunari begira baikor izateko arrazoiak eman dizkiela adierazi dute.

Hiru arlotako egoera aztertu dute: Lanbide Heziketako eskaintza, enpresen euskalduntzea eta materialgintza. Guztietan bi ondorio komun atera dituzte: lan egiteko gogoia eta plangintza orokor baten beharra.

Lanbide Heziketan egun dagoen egoera penagarria dela ondorioztatu dute. Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren ziklo guztietatik %18 besterik ez dira ematen euskaraz. Nafarroan kopurua askoz ere txikiagoa da. Iruñeko Donapean institutuan 20 ikaslek ikasten dute D ereduan, Lekaroz eta Elizondon A eta D ereduan 59 ari dira, eta Berako Toki-Ona ikastetxean eredu berdinean beste 45 ikasle. Iparraldean, berriz, ezin da euskaraz ikasi Lanbide Heziketako ziklorik.

Egoera horren aurrean, beharrez-

koa ikusten da Lanbide Heziketa euskalduntzeko plangintza nazional bat diseinatzea, helburuak eta epeak zehaztuz. Izan ere, arriskutsua ikusten dute bakoitzak bere alde-tik jotzea benetan gai honetan dauden beharrak kontuan hartu gabe.

Lan munduan ere egoera antzekoa da. Enpresa batzuek garbi ikusten du-

te lan mundua euskalduntzen ez bada, euskaraz ez duela etorkizunik izango. Zenbait enpresek euskalduntze plangintzak martxan dituzte eta sindikatuak ere eman beharreko urratsak aztertzen ari dira. Nolanahi ere, plangintza orokor baten beharra antzematen da.

Material didaktikoari dagokionez, euskarazko materialgintzak ez duela boluntarismoan oinarritu ondorioztatu da. Ildo horretan, argialetxeek esparru horretan lanik egin nahi ez badute, denen artean plangintza orokor bat diseinatu beharko dela aditzera eman dute. Era berean, euskarazko materialgintzan ari diren irakasleen lan baldintzak hobetu behar direla argi geratu da, baldin eta profesionaltasuna eta kalitatea ziurtatu nahi bada.



Euskalduntze prozesuan elkarrekin lan egiteko gogoia agertu dute parte-hartzaileek.

Argitalpenak



Irri eta barre

Joxantonio Ormazabal
Elkarlanean

Xaguzar bildumako liburu hau, 6 urtetik aurrerako haurrentzat sortua da. Inor ez aspertzea du helburu, horrela, orritik orrirajolasteko aukera eskaintzen duelarik hainbat baliabideren bitartez: asmakizunak, olerkiak, definizioak, ipuin laburrak... eta hori dena Jon Zabaletaren marrazki alai eta biziz horniturik ageri da •



Joan-atorriko txartela

Gemma Lienas
Erein


Gaztetxoentzat zuzendurik dagoen liburu honetan, gaur egun gero eta gazte gehiagorengan eragina duen gaitz latz batez mintzo da idazlea, anorexiak, hain zuzen ere. 15 eta 16 urteko bi neska dira protagonistak. Horietako bat bere pisuarekin ez dago batere gustura eta horrek arazo larriak ekariko dizkio •



Hurrengo itsasgoraren zain

Josu Penades
Ibaizabal

Gailurrean bildumako liburu hau irakurle helduentzat da egokia. Bi lagun, Izaro eta Graxi, mutil berberaz maintemindurik daude eta egun berean maitasun-aitormena egiten diote. Honek, Manuk, 48 ordu izango ditu biei erantzun bat emateko. Beraz, idazleak, bizitzaren ikuspegi adierazkorra islatu nahi izan digu, sentimenduz josirik dauden bi historio hauen bitartez •



Sherlock Holmes eta kirol arrikutsuetako elkartea

Pierre Veys eta Nicolas Barral
Jean François Sauré

Conan Deylok asmatuiko Sherlock Holmes pertsonaia beste modu batera agertzen da komiki liburu honetan, Pierre Beis gidoilari frantsesak egokitu duen moduan, hain zuzen ere. Detektibeari ikuspegi berria emateaz gain, istorioak gaurkotatuz egokitu ditu. Eta emaitza euskaraz ere argitaratu da •



Les militants étudiants

Eguzki Urteaga
Dakit

Egileak Frantziako Estatuko unibertsitateko ikasle militanteen mugimenduaren azterketa egiten du, 68ko maiatzean kokaturik. Garai hartako ikasle mugimendu bateratuaren barneko ikasleen ezaugarriak azalartzen ditu. Eta ondoren, gaur egungo mugimendu dibertsifikatu eta heterogeneoarekin konparatzen du. Liburua frantsesez idatzia dago •



EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (1994/2000)

Euskadiko Eskola Kontseilua
Eusko Jaurilaritza

Euskadiko Eskola Kontseiluak argitaratutako liburu mardul honetan 1994/2000 urte bitartean hezkuntzan gertatu diren aldaketak biltzen dira: erreformaren ezarpena, ikastetxetako aldaketak, giza baliabideak, euskal hezkuntza administrazioa eta hezkuntzaren finantzaketa •

Gipuzkoako euskal kantu txapelketako sariak banatu dira

Apirilaren 27an izan zen Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren finala Bergaran. Banakako sailean lehenengo saria Olatz Prat azpeitiarrak irabazi zuen, eta bigarrena Argiñe Agirrezabal bergararrak. Honek beste bi sari berezi ere jaso zituen: ekarpen hoberenarena eta Deba Garaiko puntuazio altuenarena.

Binakako sailean Pasai Antxoko Ezjakinak bikoteak eraman zuen lehen saria, eta bigarrena Bergarako Maitane eta Saioak jaso zuten.

Taldekako lehen saria Inoftalde andoaindarrak eskuratu zuen, eta bigarrena Bergarakuak taldeak.

Horiez gain, sari bereziak ere banatu ziren. Sorkuntza hoberenaren saria Inof taldeak eskuratu zuen. A capella egindako interpretazio hoberenaren saria Ni neu bikoteari eman zioten. Entzuleen saria Xarme Taldeari egokitu zitzaion. Eta Gipuzkoaz kanpotik etorritako partaide hoberenarentzako ezohiko saria Jone eta Xabier Bikoteari eman zioten.

Ingurumen Kudeaketa Ziurtagiria jaso du Txindoki-Alkartasuna BHIk

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak ISO 14001 Ingurumen Kudeaketa Ziurtagiria lortu du. Ingurumenarekiko zuten kezka bultzatu zituen sistema hori ezartzera eta hori gauzatu duen lehen ikastetxe eta erakunde publikoa izan da.

Kalitate ziurtagiriaren antzera, Ingurumen Kudeaketa Ziurtagiriak ere arlo horretan hainbat prozesura jarraitzen direla ziurtatzen du, helburua ingurumena modu egokian eta zentzudunean kudeatzea delarik, eta ikastetxe edo erakunde osoa inplikaturik.

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna BHIk aspaldikoa zuten ingurumenarekiko ardura, eta kezka sortzen zuen gaia zen. 1997-98 ikasturtean "Ingurumen kudeaketa" izeneko goi mailako heziketa zikloa jarri zen abian.

Bestalde, enpresa asko ingurumen kudeaketa sistemak ezartzen ari zirela ohartu ziren, eta premia zkoa zela ikasleek sistema horiek ezagutzea bertan praktikak egin ahal izateko.

Horrenbestez, ikasleek sistema hori gertu-gertutik ezagutzea, institutuaren bertan kudeaketa sistema bat ezartzeko ahalegina egitea erabaki zuten.

Lehendik ere beste zortzi institutuekin batera kalitate sarean dago, zeinean irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko ahaleginak egiten dituzten. Ingurumen kudeaketaren sistema ezartzea beste urrats bat izan da.

Zertarako da sistema hau?

Txindoki-Alkartasuna institutuak ingurumen kudeaketa sistema zehatza eta ingurumenaren zainketaekin bat datoren antolaketa mantentzeko konpromisoa hartu zuen. Pertsonen osasunaren, natur baliabideen eta inguruaren babesarekin zerikusia duen oro bereziki zaintzeko ardura, alegia.

Hori errespetatuz, ikastetxearen eremuan egiten diren jarduerak onargarriak izan behar dute ingurumenaren ikuspegitik. Hori bermatzeko ezarri zuten ingurumen kudeaketa sistema. Horrek zera ekarri zuen: ingurumen politika ikastetxearen estrategian sartzea, planifikazio prozesue-

tan eta erabakiak hartzerakoan ingurumen irizpideak erabiliz. Ondorioz, bere jarduerak eta zerbitzuak garatzerakoan, bereziki zaindu dituzte kutsaduraren prebentzioa eta garapen jasagarria ahalbidetuko duen ingurumenaren babesa.

Urratsez urrats egindakoa

Hori guztia martxan jartzea ez da bi eguneko gauza, denbora gehiago eskatzen du. Txindoki-Alkartasuna BHIk 1999-2000 ikasturtean heldu zioten gaiari. Hasierako fasean, besteak beste, RIA izeneko azterketa egin zuten ikastetxeko hasierako egoera eta ingurugiroan eragin handiena zuten arloak aztertzeko. Diagnostiko horretan ikusi zuten ikastetxeak zein aktibitatean eragiten zuen eta eragin horiek gutxitzeko helburuak eta neurriak zehaztu zituzten. Guztira hamalau helburuko zerrenda egiten zuten.

Helburu horiek lortze bidean hainbat neurri hartu dituzte. Esate baterako, laborategian sortzen diren hondakin arriskuak %10era jaisteko hondakinak hiru edukiontzitan banatzen dituzte: batean metal astunak, bestean konposatu organiko klorodunak eta hirugarrenean konposatu organiko ez-klorodunak. Hilean behin kudeatzaile bati bidaltzen dizkiete. Horrez gain, laborategian ahalik eta disoluzio bolumen gutxiena erabiltzen saiatzen dira, beharrezko kantitateak soilik erabiltzen eta abar.

Beste helburuetako bat paper birziklatuaren kontsumoa %10era jaistea da. Aipatzekoa da, institutu honetan paper birziklatua soilik erabiltzen dutela. Kontsumoa jaisteko, besteak beste, atezainak egiten dituen kopia guztiak orriaren bi aldetatik egiten ditu. Era berean, euskarri informatikoa ahalik eta gehien erabili eta lanen azken bertsioak soilik inprimatzen dituzte.

Proiektuaren planifikazioa egin ondoren, garapen faseak bi ikasturte iraun ditu. Aldi horretako eginkizun nagusia Ingurumen Kalitatearen Eskuliburua egitea izan da. Bertan sistemarekin zerikusia duen atal guztiak biltzen dira.

Azken fasean sartu berriak dira, ziurtagiria lortu ondorengoa, alegia. Garapenaren eta ezarpenaren etengabeko ebaluazioa egitean datza, ahal den neurrian hobekuntzak egin ahal izateko.

Julia Fernandez Zabaleta maistra nazionalista



Irene LOPEZ-GO I

NUPeko irakaslea

Julia Fernández Zabaleta maistra nazionalista euskalduna dugu, emakumeen eskubideak eta euskal kulturarenak aldarrikatu zituen nafarra. Euskal nafar nazionalismoarekin eta gerra aurreko Iruñeko Euskal Eskolarekin izan zuen harremanagatik ekarri dugu hona.

Iruñean sortu zen 1895eko urriaren 9an. Aita Mañerukoa zuen eta ama, berriz, Ziraukikoa. Anaia Valentín Fernández Zabaleta, euskal nazionalista hori ere, abokatua zen Iruñean, eta gero Mexikora erbesteratu zen. Euskal nazionalismoan gaztetatik ibilia zen emakume nafar honek heldua zenean ikasi zuen euskara, eta hainbat hitzaldi eman zituen hizkuntza horretan Emakume Abertzale Batzako (EAB) kide gisa.

Julia Fernández Zabaleta hiru hitz

erabiliz definitu beharko bagenu, emakumea, maistra eta nazionalista zela esango genuke, horiek baitira haren hiru ezaugarri nabarmenenak.

Julia, emakume nazionalista

Emakume Abertzale Batza (EAB) bereziki interesatzen zaigu, gerra zibilaren aurreko nazionalismoan Nafarroan izan zuen eraginagatik. Erakunde hori Bizkaian sortu bazen ere, 1931-36. urteen bitartean Euskal Herriko Hegoaldeko lau herrialdeetan zabaldu zen. Iruñeko Centro Vascon 1931ko urriaren 8an emakume talde bat Nafarroako EAB sortzeko asmoz bildu zen. Horrela, batzorde kudeatzailea eratu, barne arautegia sortu eta nafar emakumeei zuzendutako idazki propagandistikoa egin zuten. Idazki horrek hiru lan ardatz zituen: euskal nazionalismoa zabaltzea gizonen eragina iristen ez zen eremuetara; errepresaliatutako euskal kideei elkartasuna eta laguntza eskaintzea eta herriaren kultura zabaltzeko erakundeak sortzea.

Iruñeko EAB sortzeko hiriburuko Centro Vascon egindako biltzarrean zuzendaritza batzordea aukeratu zen eta honako hauek izan ziren hautatuak: Julia Fernández Zabaleta lehendakari; Katalina Alastuey Garaikoetxea lehendakariorde, Margarita Herrera diruzain; Araceli Arbizu idazkari; Maria Biskarret

Nabaz idazkariorde (Iruñea, 1907-1989); eta kideztat Juana Urrutia, Jesusa Arantzadi eta Beatriz Urmeneta. Emakume horiek hagitz lotuak aurkituko ditugu Iruñeko mugimendu euskaltzale ororekin.

EABren sarea Nafarroan zehar osatuz joan zen, 22 elkarte sortzeraino - nahiz eta 17 soilik egon legezaturik-, eta hasieran ezarritako hiru lan ardatzak jorrotzeari ekin zioten. *Gaztetxuekin* batera folklorea (antzerki emanaldiak, dantza taldeak, txistulari taldeak, abestiak...), haurrentzako jaialdiak, elkartasun jarduerak (*Gabon del solidario*), jarduera politikoak eta euskal irakaskuntzarekin lotutako ekintzak gauzatu zituzten. Ekimen horiek guztiek nafar euskal nazionalismoaren nortasuna sendotzen lagundu bazuten ere, erakunde horren azkeneko helburua azpimarratu nahiko genuke, bereziki eragin handikoa suertatu baitzen Nafarroako euskal irakaskuntzarentzat. Izan ere, haren indarrak sortu zen Iruñeko Euskal Eskola 1931n. EABk eta gerra aurreko nafar euskal irakaskuntzak izan zituzten loturak antzematen ahal ditugu Lizarrako zein Elizondoko Euskal Eskoletan ere, bi herri horietan lanean aritu ziren andereñoak ere EABko partaide izan baitziren.

Emakume haiek, hagitz aktiboak - izateaz gainera, kritiko agertzen ziren alderdiak emakumeei ematen zien es-

parruarekin. Uribe-Etxebarria ikertzaileak dioenez, nafar emakumeak beste lurraldeetako emakumeak baino aktiboago agertu ziren emakumeen esku-bideen erreibindikazioan. Arlo horretan Euskal Herriko nazionalismoan nolabaiteko aitzindaritzaz hartu zuten.

Julia Fernández Zabaleta jarrera kritiko horren adibide dugu. Ez zuen nahikotzat jotzen euskal nazionalismoak emakumei ematen zien papera. Gerra aurreko euskal nazionalismoak emakumei eskaintzen zien betekizuna tradizionala zen; baserrian edo etxean euskal familiaren balioak gordetzea eta hurrengo belaunaldiei transmititzea ziren helburu nagusiak. Julia Fernándezek, haatik, gehiago eskatzen zuen emakumeentzat. Beste herrialdeetan emakumeek etxetik at, politikan edo bizitza publikoan orokorrean, erdietsitako lorpenak ez zituen alboratu nahi, eta zeregin berri horiek aldarrikatu zituen mitinetan. Horrela, eman zituen hitzaldietan emakumeentzat beste espazio, betekizun eta eskubide batzuk erreibindikatu zituen. Honako hauek dira, hain zuzen ere, Donostian, 1924ko abenduaren 14an emakumearen etorkizunari buruz emandako hitzaldian azaldu zituen ideia nagusienak, J. Chueca ikertzaileak laburbilduta:

- Emakumezkoa gizona bezain gauza da edozein ardurari eta eginkizuni ekiteko.

- Emakumeak lanerako eta hezkuntzarako eskubidea izan behar du. Emakumeak ez dagokio ezkontzaren zain egotea. Emakumeak lana eskuratu behar du, eta ez edozein erataria ordaintzen den lana, ongi saritua izan dena baizik. Gauza bera hezkuntzari dagokionez. Gizona bezain prestua denez, beharrezkoa da hezkuntzaz baliatzea edozein ikasketa aurrera eramateko eta nolabaiteko independentzia ekonomikoa izateko.

Edonola ere, Julia, Iruñeko EABko Katalina Alastuey eta Maria Biskarret bezala, ez zen emakumeen eskubideen erreibindikaziora soilik mugatu; Iruñeko gerra aurreko Euskal Eskola irekitzen lagundu zuten. Izan ere, nafar hiriburu-

ko lehen EABko osaketan partaide izan zirenen artean, hiru horiek, maistrak izanik, lotura bereziak izan zituzten euren artean. Juliak eta Katalinak ibilbide pedagogiko eta politiko berdintsua izan zuten, bai gerra aurretik eta bai ondoren ere. Biek Iruñeko Eskola Normalean ikasi zuten eta hiriburuko San Frantzisko udal eskoletan aritu ziren lanean.

Katalina Alastuey Iruñean jaio zen 1898ko abenduaren 26an, eta bera ere emakume ekintzailea izan zen; jarduera politikoetan aritzeaz gain, Eskola Normaleko ikasle ohien elkartea sortu zuen 1920an. Maria Biskarret Nabazek (Iruñea, 1907-1989) beste bi ahizpa eta bi anaia eduki zituen eta gerra zibilean horietako bi erbesteratuak izan ziren. Iruñeko Eskola Normalean ikasi zuen eta 1927an diploma lortu. Euskara heldua zenean ikasi zuen. EAJko eta, bereziki, EABko kide izan zen. Estatuko maistra izanik eskola nazionalistetan aritu zen lanean. Bere izenean aurkeztu zen Euskal Eskola irekitzeko baimenaren eskaera Iruñeko Udaletxean eta ardura berezia izan zuen eskola horren sorkuntzan zein garapenean.

Julia Fernandez Zabaleta hiru hitz erabiliz definitu behar-ko bagenu, emakumea, maistra eta nazionalista zela esango genuke, horiek baitira bere hiru ezaugarri nabarmenenak

Julia, maistra

EABko hiru emakume hauek, maistra nazionalistak hirurak, Eskola Berriaren kariaz uztarketa pedagogikoa eduki zutela garbi dago, horren nolakotasuna antzematen zaila bada ere. Nolanahi ere, Juliak pedagogia berrikuntzarekin zuen interes teorikoa eta praktikoa islatzen duten agiriak, nolanahi ere, baditugu.

XX. mendearen lehen laurdenean Maria Montessori mediku italiarra bere ekarpen pedagogikoa zabaltzen ari zen Europan zehar. Hedapen horren ibilaldiaren barruanartzelona ikastaroa eman behar zuen 1916ko otsailetik maiatzera bitartean. Juliak, karrera bukatu berria zuela, Iruñeko Udalari Maria Montessorik eman behar zuen ikastarorako diru laguntza eskatu zion. Udalak, Eskola Normaleko espediente ona aztertuta –ohorezko matrikula anitz, karrera bukaerako nota bikainak eta goi mailako errebalidan sari berezia– eta ikastaroajaso ondoren udalaren menpe zeuden eskolaurreko eskoletarako ekarpen interesgarria izan den zelakoan, Julia Fernándezi 300 pezetako diru laguntza ematea erabaki zuen 1916ko otsailaren 19an egindako bilkuran.

Agindu bezala, hiru hilabetez Barzelona Maria Montessorik berak emandako ikastaroan parte hartu zuen. Ikastaro horri buruz Juliak egindako txostena dugu bere interes pedagogikoaren adierazle, 1916ko urriaren 9an sinatu zuena. Bi atal jorratu zituen bertan: lehen atalean Montessorik proposatzen zituen hainbat esparru garatu zituen (esan bezala, txosten horren argitalpenaren bidez mediku italiar haren teknikak hiriburuko udal eskoletan zabaltzea baitzen Iruñeko Udalaren helburua), eta bigarrenean teknika horien alderdi hobegarri zein kritikagarriak aztertu zituen. Zinez interesgarria suertatzen da horien irakurketa, 21 urte betetzear zegoen andereño batengandik espero zitekeen baino sakontasun handiagoz eginda baitaude. Bereziki kritikatu zuen emakume teorialari italiarrak hizkuntzari ematen zion trataera eska. Horrekin batera, Juliak ez zuen aipa-

tu gabe utzi nahi izan hizkuntza garatzeko irakaslearen lanak duen garrantzia ere. Halaber, Montessorik eskolaurretik lehenengo irakaskuntzarako proposatzen zuen jarraipena kritikatu zuen.

Orobat, badugu Julia Fernández Zabaletaren balio pedagogiko praktikoaz testigantza pertsonal bat ere, Maria Biskarreten ahizpa Presentxurena, alegia. Iruñeko Euskal Eskolako ikasle ohi horrek Julia izan zuen maistra San Frantziskoko udal eskoletan. Lekukotasun horrek dioenaren arabera, maistra aparta izan zen Julia. Bere metodoa aktiboa omen zen: ateraldien bidez, fenomenoen inguruko burutazioak eginez, gauzak ukituz, jolasen eta abestien bitartez... ikasten zuten eta anitzetan pianoa jotzera bere aita Valentin, katedralako organista zena, eramaten zuen. Presentxuk dioenaren arabera, ikuskaria bera ere anitzetan etortzen zen gelara Juliarren metodologia ikustera.

Eusko Ikaskuntzak antolatutako udako ikastaroetan ere parte hartzen zuten bai Maria Biskarretrek eta bai Julia Fernandezek. Edonola ere, ez dirudi prestakuntza jarraitua soilik emakume horien interes pertsonala zenik, euskal irakaskuntzaren inguruan ibiltzen zirenen beharra baizik. Izan ere, halaxe agintzen zen Eusko Ikastola Batzako andereñoentzat egin zen arautegian.

Euskal Herri mailako harremanak

Iruñeko Euskal Eskolak Euskal Herriko beste eskolekin eduki zuen koordinazioari buruzkorik ez dugu inon idatzita aurkitu. Alabaina, badakigu koordinazioa eduki zutela. Izan ere, alde batetik, antzeko proposamen teoriko-pedagogikoak ikusten ditugu Iruñekoak Euskal Eskolarako egindako arautegian eta Eusko Ikastola Batzak egindakoan. Beste aldetik, Nafarroako Euskal Eskoletan aritzen ziren andereñoak Eusko Emakume Batzako kide izanik, gure ustez, lotura pedagogikoak harreman politikoetatik ere iritsiko ziren.

Harremanen gakoak hiru emakumerengan datzala uste dugu: Elbira Zipitriarengan, Maria Biskarretengan eta Ju-



Julia Fernandez Zabaleta Iruñean 1932ko Udako Ilkasteroan Comptos Realesen ganberara egindako bisitan.

lia Fernándezengan. Iruñeko Euskal Eskolan hiru maistra horietatik bakar batek ere andereño jardun ez zuen arren, beren artean uztarturik aurkitzen ditugu, bai eskolaren pedagogia esparruan, bai politika arloan. Elbira Zipitria andereño bazebilen jada Donostiako Muñoa ikastetxean, Maria Biskarret Iruñeko Euskal Eskolako arduraduna zen eta Julia Fernández Iruñeko EABko buruzagia. Anitzetan elkartzen ziren. Maria Biskarret batzuetan egona zen Elbiraren Donostiako etxean, Fermin Kalbeton kalean. Bestalde, behin baino gehiagotan elkartu ziren han-hemenkako ikastaroetan. Julia eta Elbira elkarrekin ikusiko ditugu Eusko Ikaskuntzak 1932. urtean Iruñean antolatutako ikastaroan ateratako argazki batean, eta urte berean Gaiarre antzokian Elbira Zipitriak haurrekin egindako erakustaldian ere elkarrekin aurkituko ditugu. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak 1932an Iruñean antolatutako Udako Ikastaroetan Aita Alzoren Elebitasunari buruzko hitzaldiaren ondoren, Elbira Zipitriak Donostiako Koruko Andre Mariko haur batzuekin euskaraz ikasten ahal zela erakutsi zuen: *“Arrigarria Irakasleak, Zipitria r Elbira jatorrak, euskeraz ta sutu agurra ta aurkestea egin zuan. Itzetan trebe ta ausartiegitxo entzule aientzat, ote?... Txalotu zuten gogorki. Euskeraz galdetzen die umiai: lenbizi euskeraz, gero erdaraz... Matematika-gai zailenetakoak, Lutelizti, Edesti gai zailak”*.

Gerra ondorengoa

Gerra zibila bukatu baino lehenago hasita zegoen jada hainbat herrialdetan erbesterratu mugimendua. Halaxe suertatu zen Nafarroan ere: gerra hasi bezain pronto gehiengoa altxatuene alde jartzearekin batera hasi zen erbesterratu mugimendua, bai bertakoena eta bai estatuko beste herrialdeetakoena ere, Nafarroak duen kokapen geografikoa dela-eta. Erresistentziarako mugalari sare bat eratu zen Nafarroako Baztan bailaran, Euskal Herriko hainbat eremurekin harremanetan egon zena: “Alava” Sarea. Horren osaketan, gehienak emakumeak izanik, baztandar baten lana, Bittori Etxeberriarena, gorai patu behar da. Sare horrek lanean jarraitu zuen 1940. urteko abendura bitartean, Frantziako gobernu kolaborazionistak Alemaniarekin hitzarmena sinatu arte.

Erbesteratu ziren nafar horien artean batzuk Frantzian gelditu ziren; beste batzuek, berriz, Ameriketara egin zuten ihes. Euskal Gobernuak gerra galdutakoan erbesterrako bidea hartu zuen, eta berarekin batera joan ziren Euskal Eskolen mugimenduan aritutako gehienak. Gobernu horrek erbestean antolatu zuen hauren kolonietan Pilare Alba, Baztango ikastolako andereñoa, eta Pablo Archanco, Iruñeko Euskal Eskolarekin lotura zuzena izan zuena, aurkituko ditugu 1938. urtearen erdialdean, biak Donibane Garaziko kolonian irakasle.

Gerra hasi eta berehala Nafarroako

Hezkuntza Batzorde Nagusiak bere gain hartu zuen irakasleen garbiketa lana. Bertan aritzen ziren maisu-maistra guztien zerrenda egin zuen eta zenbait datu jasotzen ziren: jainkozaletasuna, moralitatea, prentsa irakurtzeko ohiturak eta joera politikoak. Aipatutako lau datu horiei buruzko inprimakiak igorri zitzaizkien alkate guztiei, maisu-maistren ikerketa *konfidentziala* egin zezaaten. Halaber, Batzordeak kasu anitzetan parrokoiei ere eskatu zien informazio konfidentziala, zenbaitetan Guardia Zibilari, buruzagi erreketeei zein herriko falangeari, eta pertsona partikularren salaketak ere jaso zituen.

Abuztuaren 25ean, espedienteak aztertu ondoren, lehen zigortuen zerrenda aurkeztu zuen Batzordeak. Egun horretan bertan erabaki zen lehen zigorren jitea eta haiek publikoki argitaratzea; han agertzen ziren 54 pertsonak beren jardunetik kendu ondoren, hutsik utzi zituzten beren plazak. Lehen zerrenda horren atzetik beste batzuk etorri ziren hurrengo hilabeteetan, hiru motatako zigor-jartzea zutelarik: bate-tik, zerbitzutik behin betiko kentzea; bigarrenik, langabezia mugagabea, lan egiten zuten eskolatik ateratzea eta soldata kentzea; eta hirugarrenik, behin-behineko zigorra.

Nafarroako maisu-maistra guztien ikerketa egin zuten. Hasierako zigortuei buruz eman diren kopuruen arabera, 258 maisu-maistra izan ziren zigortuak. Haatik, Nafarroako Hezkuntza Batzordearen garbiketa lanak ez zuen zigortutako maisu-maistrengan bakarrik izan eragina, jarraitu zuen prozedura zorrotza zela-eta Nafarroako irakasleria osoa garbitu baitzuen. Aginte berriek ezarritako errepresio horrek eragin zuzena eduki zuen ekintzaile ezker-tiar, errepublikazale zein euskal nazionalistengan. Euskal nazionalista izan omen zitezkeen irakasleen kasuetan, lanean jarraitu nahi zutenek beren ideia politikoak arbuiatu eta Espainia bakar-raren aldeko idazkia sinatu behar zuten. Iruñeko Euskal Eskolako emakume nazionalistek –Katalina Alastuey, Julia Fernández eta Maria Biskarret– bere-

halaxe iritsi zitzairen kanporaketa horren eragina. Lehen bien patua berdintsua izan zen: udal maistrak izanik, beren lanpostuez desjabetu zituen Iruñeko Udalak. Julia Fernándezi lana eta soldata kentzeko espediente ireki zion Iruñeko Udaleko Gobernu Batzordeak 1937ko urtarrilaren 11n sinatutako erabakian. Duen interesagatik, zigorraren zioak osoki transkribatzen ditugu:

“Esta Comisión de Gobierno, en sesión celebrada en el día 9 del actual se ocupó de las circunstancias que concurren en la Maestra municipal D^a. Julia Fernández, que no se ha reintegrado al servicio por hallarse en territorio no liberado aún de las hordas marxistas.

Y considerando que la expresada Maestra ha podido personarse en su destino, como lo han hecho otras personas que se encontraban en San Sebastián y sus alrededores, y aún en Bilbao, cuando, por el contrario, ha ido internándose, más en territorio rojo, lo que hace dejar entrever su desafecto al movimiento salvador de España, mucho más teniendo en cuenta la ideas políticas de la interesada, ésta Comisión acordó proponer a V.E. acuerde la suspensión de empleo y sueldo indefinida de la expresada Maestra, por no haberse personado en su destino, a pesar del tiempo transcurrido, y hasta que resuelva V.E. sobre lo que afecte a los empleados municipales.”

Katalina Alastuey Garaikoetxea 1937ko maiatzaren 18an kendu zuten bere kargutik, haren zerbitzuen orriari agertzen denaren arabera. Maria Biskarretrek, ordea, ez zuen zigor mota hori jaso; lan eta soldatarik gabe espedientatua izan zen bost urterako. Saran bizi ondoren, Iruñean klase partikularrak eman zituen, maistra izan zen Azpeitian, eta berriro Nafarroa Garaira bueltatu zen, erretiroa hartu arte Erratzuko eskolako maistra lanetan arituz.

Emakume haiei zigorra ez zitzairen horretan gelditu, ordea. Urte batzuk geroago, 1951n, Iruñeko Bikarriotzak Julia Fernández eskumikatu nahi izan zuen, etxea uzteko jasotako Elizaren agindua betetzen ez zuela aitzakiatzat harturik

eta, horretarako, Vatikanora igorri zuen horren aldeko eskutitza. Juliaren kide batzuek Arantzadiren etxean bilera antolatu eta eskumikatzearen kontrako eskutitza idatzi zuten Vatikanorentzat. Hego Euskal Herrian Apezpikuen la-guntzarik ezin zela jaso ikusirik, Elizaren goi mailako hierarkiaren aurrean bere eragina balia zezan eskatu zioten Daxen zegoen euskal apezpikuari bertaraino joanda –eskutitza eramatera T. Epaltza joan zen–. Haren bitartez lortu zen eskutitza Vatikanora iritsi eta zigor hori ez gauzatzea.

Julia Fernández eta Katalina Alastuey, beste hainbat udal langile bezala, 1957an udalak hartutako erabakiaren ondorioz, beren lanpostuetan berreza-riak izan ziren. Zerbitzuen orriaren ar-bera, Katalina urte bereko otsailaren 27an udal maistratzat birjabetua izan zen. Juliak gehiago itxaron behar izan zuen berriro lanean aritzeko, 1958ko urriaren 7ra arte, eta lan horretan aritu zen 1961eko otsailaren 16an zendu zen arte. ●

Bibliografía

- CHUECA, J. (1995): *Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey, emakume aitzindariak*, Huarte de San Juan (Geografía eta Historia), 2.

- IPES (1998): *Ellas. Las Mujeres en la Historia de Pamplona*, Iruñea, Iruñeko Udala.

- GUIBERTNABAZ, E. (1990): “La mujer como educadora de párvulos: La influencia de María Montessori en las Escuelas Municipales de Pamplona”, in A.A.: *Mujer y Educación en España, 1868-1975*, VI Coloquio de Historia de la Educación, Santiagoko Unibertsitatea.


- LÓPEZ-GOÑI, I. (2002): *Nafarroa Garaiko Ikastolen Historia (1963-1982)*, a.g. Tesia.

- UGALDE SOLANO, M. (1986): “Orígenes, objetivos y organización de la agrupación de Emakume Abertzale Batza de Navarra”, *Príncipe de Viana*, 5 eranskina.

- URIBE-ETXEBARRIA, A. (et al) (1994): “Emakume abertzaleak Nafarroan eta ideologiaren transmisioa: hurbilpen historikoa”, in Nafarroako Kondairaren III. Batzarre Orokorra, Navarra y Europa, CD argitalpena, Iruñea, Nafarroako Gobernua.

Hil ala bizi?

*Bizi, noski!
Eta abentura
askorekin!*



GALTZERDI SUIZIDA

Mariasun Landa
Anton Olariaga

Denok ez gara berdinak...



*igarkizun berri-berriak
eta marrakzi ikusgarriak
ipuin zoragarri bat*

Mintzo naiz isilik...

Juan Kriz Igeñabide
Lorena Martínez



dona dona saila

*Sehaska dute belarrezko
eta zerna beharrezko.
Kantatzen dute alai
banaka eta bananaka ere bai.*

SPAINIA

BETKO TARTALO
JANTZI BERRIEKIN



elkar